

...eta **kitto!**

761 zkia. 2011-IV-29

ASTEKARIA

TOKIKOM

Hilabete osorako ARGAZKILARITZA **uzta** MAIATZEAN

EUKi

ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



Irribarrerik onena lortuko duzu
ortodontzia ikusezinarekin!



...eta atera egiezu etekina hortz-zuriketan ditugun
promozio bereziei.

Zatoz eta kontsulta egin



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxebarria 12 - 1. Esk.
20.600 EIBAR (Gipuzkoa)
Tel. 943 20 85 52



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Adrian Alvarez

Maidier Aranberri

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEÑUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Silbia Hernandez eta Ander Salegi

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidier Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnos: 943 20 67 76

AZALEKO IRUDIA:

Mateo Guilabert

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ainhoa Luz

TIRADA:

8.000 ale

INPRIMATEGIA:

ERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!*k ez du bere gain hartzen

aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

HARRAMARRA.- Zarata, droga, zirriparra, nahastea, saltsa. "Haretariko bat hasarretu egin zan eta han euki eben izateko harramarria!".

HARRAPATZEN.- Umeen jolas bat. "Berrogei kontau eta harrapatzen egin deigun afaittako ordura arte".

HARRIABAR.- Harria, txingorra. "Harriabarra dator Elosu aldetik".

HARRIABARRA / HARRIXA BATU.- Hondamendian jausi. "Harriabarra batu detsa bere buruari jokuakin".

ESKUTITZAK

GAZTETXEA, DENON ETXEA!

Ametsak errealtate bihurtzeko gaitasuna dugula sinisten dugulako batzen gara domekero arratsaldeko 19.00etan, momentuz, kalean. Gune askeak maite eta behar ditugu askatasuna beste eta ez dugu inongo instituziorik bideratutako eta baldintzatutako lokal zein gunerik nahi, gure ametsak baldintzarik gabe gauzatu nahi ditugulako. Gure beharren, nahien eta gaitasunen arabera gune baten aldeko aldarria da ondorengo lefroetan azaldu nahi dizueguna. Lau hilabete pasatu dira Udalak Eibarko Tallarra Gaztetxeko paretak bota zituela, eta lehenago aurreratu genuen moduan, bertan ernaldutako sentimenduak bultzatu gaitu eta bultzatuko gaitu kosta ala kosta Gaztetxe berria topatu, atondu eta amets fabrika bihurtzera. Aspaldi ikasi genuen irudimena eta autogestioa lantzen, gauzak gure kabuz egiten, elkarlanean, auzolanean. Horregatik da aberatsa Gaztetxea, norberak dituen trebeziak eta ahalmenak beste-enakin batu eta modu kolektiiboan gure bizitza sozialean, politikoan zein kulturalen faltan botatzen ditugun ekarpenak eta harremanak garatzeko aukera dagoelako bertan. Asanbladan sinisten dugu, Gaztetxea dena eta denon artean gauzatutako gune bat izan behar dela uste dugulako. Autogestioak gudan sinisten era-

kutsi digu, dena diruz ordaintzen den garaiotan, preziorik ez duen eta erosi ezin den sentimendua benetan! Jendarte eredu partehartzailea behar eta nahi dugula ohiukatu nahi dugu lau haizetara, eta nola ez, laster Gaztetxe berria izango dugula ere aipatu gabe ezin bukatu. Zuei, denoi, asanbladan parte hartzeko deia luzatu nahi dizuegu, Gaztetxe zuena ere badelako, gero eta gehiago izan, gero eta gehiago ikasiko dugulako. Eta ikasteko gogoia handia dela aitortu behar dizuegu, Gaztetxe berria izateko gogoien beste. Momentuz, eta hasieran aurreratu moduan, kalea da gure gaztetxea eta hala izanik, bihar Txaltxazelaiko parkea ilusioz moztortuko da, Gaztetxe berria behar dugunon sentimenduak indartu eta elkar ezagutzeko aukera zoragarria! Gaztetxe Eguna deitu diogu bihar egingo den ospakizun handi eta aldarri bereziari, herritarrek eta herritarren artean okupatutako gunearen beharra zabalteari. Horretarako elektro txaranga, bazkaria, bakarlarria, antzerkia, kontzertuak eta musika ez dira faltako! Labur-labur esanda: Bihotza, burua, eskuak... sentitu, pentsatu, ekin, **denok elkarrekin!** Aupa Eibarko Gaztetxe autogestionatua! Gaztetxea, denon etxea!

EIBARKO ASANBLADA BERRIA

asteko

HEMEROTEKA

esaldiak

"Ekialdekoak gara munduko kristau bakarrak eta gure gazteek ez dute ikastera nora joanik. Zer egin du Europak guri laguntzeko? Eta Erromak? Ez agintari zibilek, ez erlijiosoek, ez dute atzamarrik mugitu gure alde, herri baten genozidioa ematen ari denean. Benedikto XVI Aita Santuak lagunduko digula esan du, baina hori berriketa besterik ez da. Gure jendeak irten beharra du: ez bagaituzte hiltzen, gure lokalak erretzen dituzte. Gure etorkizuna iraken ez da bihartik pasatzen"

(Luís Dhábi, Bagdadeko eliza kaldearren burua)

"Ikastetxeak zientifikoki antolatuta beharko liriteke eta ez politikoki. Gizon baten burmuina 20 eta 25 urteren artean garatzen bada eta emakume batena 17rako heldua bada, gela mistoetan zelan funtzionatuko du komunikazioak? Hori derrigortzea da. Bakoitza bere aldetik ez badugu hezten, gizonezkoek diskriminazio negatiboa jasoko dute eta inoiz ez dira berdinak izango; feminismoak ere ez ditu alde horiek kontuan hartzen eta horregatik doaz aldeak haunditzen"

(Anne Moir, neurologoa)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

**ZIKLIMOTORRENTZAT
AZTERKETA TEKNIKO**

Eguaztenian, maiatzaren 4an ziklomotorren azterketa teknika egingo dabe zezen plazan, 09.00etan hasi eta 14.00ak arte. Azterketa egin ahal izateko alde zurretik txandia eskatu biharko dabe interesa dakenak, Udaltzaingora deittuta (943708424 telefonua). Azterketa egittiak k 24'80 euro balixodau eta 10 bat miñutuan eginda egoten dala aurreratu dabe bertako arduradunak.

**GREBA DEIALDIXA
JANGELETAN**

LAB, ELA eta UGT sindikatuak maiatzaren 2, 3, 4, 5 eta 6rako grebarako deialdixa registrau dabe jangeletan, "patronalaren jarreraren aurrian beste biderik ez dagualako". Horrekin batera, Eusko Jaurlaritzak gitxieneko zerbitzuak agintzian "grebarako eskubidia urratzen" dabela salatuta dabe.

**BIHARRAK MENDAROKO
OSPITALIAN**

Osakidetzatik bialdutako idatzixari jarraituta, Mendaroko ospitalian klimatizaziño sistemian hobetzeko biharrak hasi ditue oiñ egun batzuk. Biharrak aparkatzeko dagan tokixan eragiña eukiko dabela aurreratu dabe, normalian baiño toki gitxiago egongo dalako. Eragozpenengaitik barkamena eskatu eta biharrak danon onerako izango dirala gogoratu nahi detse kaltetuta izan leikiazen herritareri.

Nagusixen Hamabostaldixa astelehenian hasiko da

HAMABOSTALDIXAREN INAUGURAZIÑO OFIZIALA ASTELEHEN EGUARDIXAN IZANGO DA, PORTALEA KULTUR ETXEKO ARETO NAGUSIXAN. Ohikuari jarraituta, antolatzailliak programaziñuaren gaiñeko esplikaziñuak emongo ditue. Egunian bertan ekingo detse programaziño jarduereri, 16.00etan Untzagatik Azittaiñerako bidian abiatuko dan Juan Luis Mugerzaren Oroimenezko ibillaldixarekin.

Hurrengo egunian, martitzegunian, Egogain Gerontologia Zentruan txokolate-jana eskinduko dabe, 16.00etan (bertakuentako bakarrik). Eguaztenegunian, barriz, eskursiñua antolatu dabe, Aralarreko San Miguelera. Autobusak Ego Gaiñetik urtengo dau, goizeko 09.00etan. Eta egunian, hilla- ren 5ian, 11.00etan hasiko dira toka, petanka eta igeltoka txapelketak, Ipuruako bolatokixan. Mahai-jokoen txapelketak be egunian bertan jokatu dira, baiña arratsaldian, 17.00etan



Untzagatik Azittaiñerako ibillaldixarekin hasiko da beste behiñ Hamabostaldixa. / EKHI BELAR

hasitta, Ipuruako jubilaueguntxian. Maiatzaren 6rako Untzagako jubilaueguntxian martxan egongo dan argazki erakusketara bisittan juateko aukeria eukiko dau nahi dabenak, 19.30xetan. Jose Luis Irigoien argazkilarixak erakusketaren gaiñeko esplikaziñuak emongo detsez bertara gerturatzeratanimatzen diraneri.

Asteburuko etenaldixaren ostian, hilla- ren 9xan helduko detse atzera be programazi-

ñuari, Coliseoan emongo daben zine emanaldixarekin. Bixaramonerako Mendarora mendi ibillaldixa preparau dabe (16.13etan), hilla- ren 11n Zarzuela emanaldixa eskinduko dabe Untzagako jubilaueguntxian, hilla- ren 12xan Legarreko frontoian herri-bazkarixa (paellia) eta dantzaldixa ospatuko ditue eta, hamabostaldixa agurtu baiño lehen, hilla- ren 14an Egogain Gerontologia Zentruan dantzaldixa egingo dabe.

Euskeriaren transmisiñuaren gaiñeko mintegixa**MAIATZAREN 25-ERAKO
EUSKERIAREN TRANSMISI-
ÑUAREN INGURUKO MINTE-
GIXA ANTOLATU DABE
...ETA KITTO! EUSKARA EL-
KARTEKUAK.**

Mintegixan euskeriaren transmisiñuak dakan garrantzixa azalduko dabe eta, horretarako, EAEko hainbat erakundetako ordezkariak zein esparru horretan biharrian diharduen aditu eta teknikariak gonbidatu ditue, bakotxak bere esparruan daguezenen gaiñeko es-

plikaziñuak azaltzeko. Bestiak beste, euren ponentzietan Nafarroako ekimenak, Ikastolen Federaziorekin esperientzia, transmisiñua aisialditik lantzeko Getxon eta Arrasaten daguezen esperientziak, Udaletako ekimenak eta soziolinguistikako ikuskeria moduko kontuak landuko ditue eta, berbal- dixekin batera, mahaingurua be preparau dabe.

Mintegixa goizetik (08.45etatik 13.30etara) eta arratsaldetik (15.00etatik 17.30xetara) emongo dabe, Portalean. Udaletako euskera teknikarixeri, euskera alkarteko kidieri, irakaslieri eta aisialdi



taldietako ordezkari zuzenduta dago eta parte hartu nahi dabenak alde zurretik izena emon biharko dabe (maiatzaren 4tik 20ra bittartian). Horretarako ...eta kitto! Euskara Elkartera zuzenian jo leike (Urki- zu, 11 solairuartea) edo, beste- la, telefonoz deittu (943-200918). Parte hartzen dabenak 20 euro pagau biharko ditue eta prezio horren barruan bazkarixa sartzen dala argittu dabe antolatzailliak.






II. Errepublikatuta gogoratu eben

APIRILLAREN 16-XAN, ZAPATUAN, ATZERA BE BANDERA ERREPUBLIKARRA UNTZAGA PLAZAN IKUSTE-KO AUKERIA egon zan, Ezker Batua-Berdeak alderdixak II. Errepublikaren 80. urteurrena goguan antolatutakueri esker. Azken urtiotako martxari jarraituta, Ermutik hasitta Untzagaraño egindako martxa errepublikanuekin ekin ze-

tzen egunari. Jarraixan, eta martxan parte hartu ebeneri ongietorrixa emon ostian, politikuen hitzaldi eta interbenziñuetarako tartia egon zan eta, horretxek amaittuta, orduantxe igo eben banderia Marcelo Usabiagak eta M^aLuisa Lekunberrik. Txaltxa Zelaixan egindako herri-bazkarixarekin biribildu eben eguna, bapo bazkalduta.

Klavo Oxidado taldekuak be izango dira Txaltxa-Zelaixan izango dan kontzertuan.



Gaztetxe Eguna antolatu dabe bixarko

TALLARRA GAZTETXIA DESAGERTUTA, GAZTETXE BARRIXA ETA OKUPAZIÑUA ALDARRIKATZEKO Gaztetxe Eguna antolatu dabe. Txaltxa Zelaiko parkian eguardi partian ekingo detse preparautako programaziñuari, Debako Elektro Txarangak girotuko daben poteo eta kalejirarekin.

15.00ak aldian atzera be Txaltxa Zelaia juango dira, parkian bertan bazkarixa egitteko eta, bazkalostian, bakarlari baten emanaldixa eta antzerki saiauekin hasiko dira arratsaldekua. Eta horretxek amaittuta, Eibarko Lokura Prematura eta Soraluzeke Klavo Oxidado taldiak kontzertua emongo dabe.

auzoric auzo



Dana gertu dake Santa Kurutzeko jaixetarako

Hurrengo asteburuan, hillaren 7xan eta 8xan batu dittue Santa Kurutzeko jaixetako programaziñua osatzen daben jarduera gehixenak baiña, halanda be eta urteroko ohitturari jarraituta, egunian bertan, hillaren 3ian, 18.30xetako kanpai errepikarekin eta jarraixan, bertako ermittan Gorosta eta Mandiola auzuetan hildakuen alde ospatuko daben meziarekin gogoratu dabe Santa Kurutz eguna dala. Hurrengo asteburuan, baiña, egun bixetan ederto ibiltzeko aukerarik ez da faltan izango, zapatuan goizetik hasi eta domekan, atzera be goiz osua betetzeko moduko egitaraua osatzen daben jarduereri esker. Zapatuan kanpai-errepika eta mezaren ostian hamarretakua egingo dabe. Eguardixan Juan Mari Narbaiza eta Jose Luis Gorrotxategi bertsolarixak eta Ander Agirrebeña eta Unai Andonegi trikitilarixak saiaue eskinduko dabe eta, horrekin batera, haurrendako zeñi auzoko gaziendako joko eta jolasak egingo dittue. Bazkarixa, urteroko moduan, Ixua jatetxian izango da (txartelak salgai dagoz Ixuan bertan).


eibar kaleka

Txonta kalia

Urkizu pasialekutik eskumarako bidia segiduta topatzen dogun kaliak auzua jasotzeko orduan eraitsitako basarrixetako bateri zor detsa izena eta, bestiak beste, Toribioren "Lexikoiak" jasotzen dau haren gaiñeko aittamena ("Aspaldi geldirik zan Txonta'ko errobera aundixa").

Pegora kopurua: 46

Erroldatutakoak: 745



asteko
197.500
datua

euro emongo detsa Eusko Jauriaritzak Eibarri Emergentzixa Sozialerako laguntzetarako. Iaz 235 famelixak jaso eben laguntza hori, 2009xan baiño gitxiagok. Etxiaren konponketak, lehen maillako biharrak eta elektrodomestikuek 1.850 euroko topia izango ditue.

Errebaleko parkiña be asfaltau dabe


EGUNOTAN HERRIKO KALIETA-KO BATZUK ASFALTATZEKO BIHARRIAN DIHARDUE eta, hori dala eta, trafikuan aldaketa batzuk egon leikiatzela abisau dabe Udaltzaiñak. Bestiak beste gaur bertan Wenzelao Orbea kaleko 14. zenbakixan hasi eta 22. zenbakiraño doian zatixan jardutia eguan aurreikusitta. Aste honetan bertan asfaltaua dabe baita be Tiburtzio Anitua kaleko beste zati bat eta eskoletan oporrak dittuela aprobetxauta, barriz, Urki auzoko Arrateko Andra Mari ikastetxeko jolastokixa konpontzeko biharrian jardun dabe azken egunotan.

Edozelan be, herritar askoren arreta benetan erakarri daben asfaltaua Errebal kalekua, behin-behiñeko parkiñekua izan da. Izan be, oin dala hillebetiak martxan ipiñi ebenetik behin baiño gehixagotan plazaratutako proposamena izanda be, behin-behiñeko erabilleriaren aitzakixarekin ez asfaltatzeko ideari eutsi detse agintarixak. Horregaittik, bat baiño gehixago harrittuta geratu da zulo guztiak tapata eta aparkalekua asfaltata ikustian. Ixa 30.000 euroko presupuestua euki dabe Errebal asfaltau eta pintatzeko biharrak.



Bildu-ko ordezkariak biharrerako irrikittan

BILDU KOALIZIÑUAK EGU-AZTENIAN EMON ZITTUAN EZAGUTZERA HURRENGO HAUTESKUNDIETARAKO LISTIA OSATZEN DABENEN izen-abizenak, alkartetxian prensarako deitutako agerraldixan. Aste honetan ezagutzera emondako koaliziñuak osatu daben zerrendaren buruan Igor Aldalur gaztia dago eta haren atzetik Josu Cristobal, Soco Baskaran, Leire Abanzabalegi, Nerea Castro eta Begoña Vesga doiaz, orden horretan. Aurkezpena egiñ eben egunian bertan Bilduren zerrenda guztien inpuñaziñua egitteko erabagixaren barri eukitta be, koaliziñoko ordezkariak horren gaiñeko debatiari baiño, taldiak landu daben herri programari garrantzixa emoteko eskatu zetsen komunikabidieri, "izan be, ez dogu ahaztu bihar gaiñian dittugun honek herri maillako



Herriko alkartetxian aurkeztu eben formaziño barrixa. / SILBIA HERNANDEZ

elekziñuak, hauteskunde munizipalak dirala eta pentsatzen dogu indarra horretan ipiñi biharraga dala".

Horri jarraituta, lehelengo agerraldixan gaiñetik baiño aittatu ez dittuen programaren ildo nagusixak modu zihetzaguan azaltzen juango dirala aurreratu eben. "Gaur egungo errealdade instituzionala ezkerretik irauli nahi dogu, zergen gaiñeko politika orekatua billautu, zerbitzu sozialeri lehentasuna emonda. Urteko presupuestuak adosteko orduan, bestalde, herritarrak aha-

lik eta partehartzerik zuzenena izatia ezinbestekua dala pentsatzen dogu. Ingurumena hobetzeko proposamen zihetzak be badakaguz eta hizkuntza konuetan, barriz, euskeria ezagutzetik erabillerara pasatzeko sasoa dala begittantzen jaku". Etxebizitari, gazterixari eta beste hainbat arlo zihetzari lotutako proiektuak be jaso ditue herri maillako euren programan. Azken orduko ezustekorik agertzen ez bada behintzat datorren astian, hillaren 4an 19.00etan presentaziñua jai giruan eta herritar guztiendako zabalik egongo dan ekitaldixan egitteko asmu dake.



Urkizuko komunak barritzen

AURREKO ASTIAN BOTA ZITTUEN BEHERA URKIZUKO PARKIAN, KIOSKUAREN PARIAN EGUAZEN KOMUNAK. Egunotan han inguruan lurra bardintzeko biharrian jardun dabe eta hamendik gitxira, dana ondo bidian hurrengo astian, Amañan eta Ego Gain kalietan "oso emaitza onak" izan dittuen komun moduko beste batzuk ipiñiko ditue Urkizuko parkian be. Bere kabuz garbitzen diran komun hónek ipintzeko egin biharreko inbersiñua 51.000 eurokua izango da.


Bizi dogun krisixari aurre egitteko urtenbidietako bat izan leike biharra dakanak ordu gitxiago sartu eta gitxiago kobratu paruan daguezenak aukera izan deixen biharra aurkittu eta dirutxo bat etxera eruateko. Hau da, krisixaren eragiña danon artian banatzia. Baiña, idea polita izanda be, jendia prest dago halako zeozer egitteko?

Prest egongo ziñake gitxiago kobratzera jende gehixagok lan egiñ ahal izateko?



TRINIDAD ZALABARDO
79 urte
jubilaua

Ondo begittantzen jata, baiña gauza bat da teorixia eta beste gauza bat praktikia. Seguruenik iñork ez genduke nahi gitxiago kobratzia, batez be asko kobratzen dabenak. Diru asko dakanak gehixago nahi izaten dabe beti.



ANDRES ELORDI
79 urte
autonomua

Ez jata txarto begittantzen. Alternatibia izan leike dagan egoeriarri bueltia emoteko. Baiña, errealistak izan ezkeru, seguruenik jende asko ez litzateke prest egongo hori aurrera eruateko.

ANTONIO HERRERO
70 urte
jubilaua

Zergaittik ez? Saiakeria egin zeikian; akaso jende gehixaguendako biharra egongo zan holan. Halanda be, ni jubilauta nago eta nere ikuspegixa ez da gazte bategen izan leikiena...



MARIA ORIZA
29 urte
bihargiña

Ez dot larregi irabazten eta, gitxiago kobrau ezkeru, ezingo nintzateke bizi. Egoeriak ez dau asko laguntzen. Soldatak altuagoak izan ezkeru, irtenbidia izan leike, baiña gaur egungo baldintzetan niretako ez da egingarrixa.



ARTOLA

jatetxea

ASTEBURUKO DEGUSTAZIO MENUA

Astelehenetik
barixakura
EGUNEKO
MENUA
15 €

*Etxeko foie-a
Iberikoen eta tipulineko entsalada epela
Onddo, otarrainxka eta espinaken nahaskia*

*Legatza saltsa berdean edo
Club Ranero bakailaoa*

*Solomilloa plantxan edo
Ahate konfit-a*

*Degustazio postrea edo
Limoi sorbetea cavarekin edo
Txokolate mousse-a*

Urteko ardoa, sagardoa edo beste

25 € + BEZ

Tokia gordetzeko:
943206348



ESTUDIOS ARRILLAGA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK**



Arragueta, 12 EIBAR
Tel. 943 20 06 98

**LOKALAK
ETXEBIZITZAK**



ELGOIBAR Errosario, 15
Tel. 943 74 40 19

Debabarreneko **Emakumeen I. Topaketa Interkulturala** hartuko du Elgoibarko Kultur Etxeak datorren astean, maiatzaren 7an. Topaketa Debegesa Debabarreneko Garapen Ekonomikorako Elkarteak antolatu du, Eusko Jauriaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren babesarekin eta Inmigrazio Zuzendaritza, eskualdeko Udaletako berdintasun eta inmigrazio agenteekin elkarlanean. Ainara Garcia Debegesako Giza Kapitalaren Garapen saileko teknikariak azaldu dizkigu emakumeentzat bereziki antolatzen diharduen jardunaldiaren nondik norakoak.



AINARA GARCIA, teknikaria:

“Andrak batzen zein banatzen dituztenak azaltzeko topaketa izango da”

- Nolatan bururatu zaizue horrelako topaketa antolatzea?

Debabarrenean bizi diren etorkinen integrazioa ardatz duen Eskualdeko Lehenengo Ekintza Planaren testuinguruan kokatu beharreko jardunaldia da. 2007an eskualdean inmigrazio eta genero arloko egoera zertan zen aztertzen hasi eta hurrengo urtean horren araberako plana sortu genuen, kultura ezberdinen arteko elkarbizitza egokia lortu ahal izateko jarraitu beharreko ildo estrategikoak zeintzuk diren zehaztuta. Plan horri jarraituta sortu zen topaketa antolatzeko ideia.

- Eta zer bilatzen duzue topaketarekin?

Orohar, helburu nagusia denontzat aberasgarria den etorkinei egindako harrera hobetzea, integrazio sozialean laguntzea eta elkarbizitza sustatzea da. Horrekin batera, jardunaldiak eskualdeko emakumeentzat topagunea izan nahi du, emakumeek elkarren berri izan dezaten, martxan dauden elkarteetan lana hobeto ezagututa. Horri esker, emakumeak elkarteetan parte hartzea animatzea gustatuko litzaiguke. Beste maila batean, topaketan azaltzen joango direnei esker Debabarreneko emakume inmigranteen egoeraren eta premien inguruko aurre-diagnostikoa egitea ere aurreikusita daukagu.

- Nola antolatu duzue maiatzaren 7ko jardunaldia?

EGITARAUA: 09.30.- Irekiera eta aurkezpena. 10.00.- Hitzaldiak: HAIZEA (Elgoibarko emakumeen kultur elkarte), SAFA (Eibarko arabiar-musulman emakumeen elkarte), LACASIUN (Eibarko emakume latindarren elkarte) eta GARAIPEN (Errenteria-Donostiako emakume inmigrante eta euskaldunen elkarte). 11.00.- Atsedena (kafea, tea...). 11.30.- Kafe-tertulia: emakume bilgunetaz gogoeta. 12.45.- Kafe-tertuliaren bateratzea. 13.00.- Ondorioak eta itxiera.

Izena emateko azken eguna: Maiatzak 4.

Informazioa: balioak@debegesa.com / 943 82 01 10.
Hartzaindegi-zerbitzua gongo da.

Bitan banatu dugu. Lehenengo zatian, emakume etorkinek, bertokoe eta jatorri mistoa dutenek osatutako lau elkarteetako ordezkariak egingo dute berba, eurek garatzen dituzten jarduera, helburuak eta ekintza esparruak zeintzuk diren azaltzen. Eta, ondoren, kafe-tertulia egingo da, “Emakumeen bilguneei buruzko gogoeta” izenburuarekin.

- Parte hartuko duten elkartei begiratu gero, gurean bizi diren etorkinen kolektibo nagusi biak, musulmanek eta latindarrek osatutakoak ordezkaturatu egongo dira, Eibarko Safa eta Lacasiun elkarteen eskutik. Errealitate ezberdina bizi dute talde horietan daudenek?

Bai, jakina. Kontuan izan behar da etorkinaren jatorriak berak hainbat ezaugarri ezartzen dizkiola maila kulturean zein beste arlo batzuetan ere, andrazkoei zein gizonezkoei. Baina, hortik aparte, emakumeek, emakume izate hutsarengatik berezitasun batzuk ere gehitzen dizkiete berdinak izan daitezkeen ezaugarri horiei. Topaketan, andra etorkinak eta etorkinak ez direnak batzen dituztenak zein elkarrengandik aldentzen dituztenak azaltzea bilatzen dugu. Bestalde, Errenteria-Donostiako kasuan emakume inmigrante eta euskaldunak elkarrekin lanean dihardute eta, beraz, integrazioa eta elkalanara posible direla ikusi eta ikasteleko aukera izango da.



**MANIFESTAZIOA
DONOSTIAN
12.00etan,
Alderdi Ederren**

**ENPLEGUA
ESKUBIDEEKIN
eta murrizketa
sozialen aurka**

**AUTOBUSA
10.30etan,
Ego Gainen**

Radio Eibar

CADENA
SER

104,0 FM



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Atzokuan osasun laboralaren inguru-ko mobilizaziñuak protagonista izan ziran moduan, domekia Maiatzaren 1 izanda sindikatuak atzera be mobilizaziño eta bestelako ekitaldixekin urtengo dabe kalera, urtian zihar bestela be aldarrikatzen dittuen eskaeriak oindioñok be indar gehixagorekin exijitzeko asmuarekin. Erregular, sindikalistak biharrerako daken esparruak ez daka erosua izateko arrazoirik eta azken hillebetiotako errealidadiak ez dau hori

Lan-erreformari aurre egitten

egoera hori mejorau, ezta gitxiago be, krisixaren aitzakixarekin bihargiñen eskubidiak gero eta murriztaguak izaten diharduen momentu honetan. Edozelan be, kasu gehixenetan Bihargiñen Nazioarteko Egun horretako protestak jai giruarekin kutsatzeko kapazidaderik ez jakue faltau beste batzuetan be eta aurten ez da ba salbuespena izango.

Aurten alkarrekin ospatuko dabe Maiatzaren Lehena ELA eta LAB sindikatuak, Bilbon, 11.30-xetan Jesusen Bihotzetik urtengo daben manifestaziñuan eta, holako egunian munduko bihargiñak osotasunian, talde bakkarran alkartzeko joeriari uko egin barik be, domekako manifestaziñuaren buruan zabalduko daben pankartarako aukeratu daben esaldixak jasotako eskaeria euskal bihargiñak euren baldintzak bertan, Euskal Herrixan erabagitzeko eskubidiaren aldekoa izango da.

CCOO eta UGT Donostian

Beste sindikatu nagusi bixak, hau da, CCOO



eta UGT-k Donostia aukeratu dabe mobilizaziñuetarako eta alkarrekin deittutako manifestaziñua 12.00xetan abiatuko da, Donostiako Alderdi Ederretik hasitta (autobusak Ego Gaiñetik urtengo dau, 10.30xetan). Aukeraturatuko leman, lan erreformaren eskutik aillegauko diran murrizketa sozialen kontrako protestiari emon nahi izan detse indar berezixa oinguan.

Izan be, esaldi diferentiak erabillitta be, indarrian ipiñi nahi daben erreformaren kontrako garrasixak izango dira nagusi domekan, ideologixa eta kolore guztien gaiñetik bihargiñen eskubidien murrizketia ekarriko daben erreforma modura begiratzeten detse gehixenak, mesfidantzaz, eta horrek isladia eukiko dau aurtengo Maiatzaren Lehengan.



MODU ERAGINKORREAN MOBILIZATZEN GARA LAN ETA GIZARTE ESKUBIDEAK ERREBINDIKATU, BABESTU ETA HOBETZEKO

MANIFESTAZIOA DONOSTIAN
Alderdi Ederren, 12.00etan
Autobusak Ego-Gaiñetik: 10.30etan

CCOO
osakalito langile kooperatibak

maiatzak

Maiatzaren 1a

LAB
Langile Abertzaleen Batasuna

GORA MUNDUKO LANGILERIA!
"Euskal langileak gure baldintzak erabaki"

11.30etan Bilbon, Jesusen Bihotzetik irtenda

Euskal presoak lantokietara

TEEN-
AJEA

Emaitzak baino, esperientzia lortu nahi du Kalamua taldeko Nekane Muguruza judokak. Podiumaren goi-goian egoten ohituta, maiatzean Espainiako txapelketa biri egingo die aurre: 8an judokoa eta 22ian iaz irabazi zuen jiu-jitsukoa. Sambo ere praktikatu zuen gustora, baina ez du bere pisukorik aurkitu. Kobyarekin urteak egiteko prest dugu.

NEKANE MUGURUZA, judoka:

“Japonian bizi izandako esperientzia dut gogoan”

- Zenbat urterekin hasi zinen judoa egiten? Zenbatekin komeni da hastea?

Ni oso gazte hasi nintzen, hiru urterekin, “Haro” nire osabak bultzatuta. Hala ere, 4-5ekin hasita igoal hobe, pixkat helduago.

- Gerriko marroia zara? Noizko beltzerako jauzia?

Luze joko du, 16 urte izan arte ezin zara-eta gerriko beltza izan. Bi urte daramatzat marroiarekin eta beste bi geratzen zaizkit. Bitartean, merituak egiten joan beharko!

- Azken aldian infantil zein kadete moduan diharduzu lehiazten. Zein da zure benetako maila?

Infantil mailako azken urtekoa naiz; baina, Manu Agirre prestatzailearen gomendioei jarraituz, kadeteetan ere parte hartzen dut. Horrela gehiago ikasten dut.

- Gogor entrenatzen duzu? Zenbat ordu egunero?

Hor erealdiak izaten dira, baina gutxi gorabehera astero bi-hiru aldiz entrenatzen dut, bi orduko saioetan. Manu zorrotza da horretan.

- Zeintzuk dira lortu dituzun garaipen garrantzitsuenak?

Iaz jiu-jitsun Espainiako txapelata jantzea ezustea izan zen niretzat, batez ere ondo pasatzera joan nintzelako, beste asmorik gabe. Gipuzkoako txapela jantzi dut birritan, alebinetan eta infantiletan, eta lehenengoa izan zen onena.

- Zein balore eskaini dizkizu ekialdeko kirol modalitateak?

Gogorra ematen badu ere, erraza egiten du gure artean bizi dugun giroak. Elkari laguntzen dihardugu, txikienei erakusten, “sartu gerria”-eta aholkatuz... Batez ere, gogoa izan behar duzu, ikasketekin partekatze ere.

- Eta minik hartu duzu? Lesiorik-edo?

Ez dut gauza handirik izan, baina horregatik ikasten dugu jausten ere. Gure kirolean besoa zaindu beharra dago, oratzeko-eta hatzaparrez baliatzen gara.

- Bidaiatzeko aukera ere izanago zenuen, hainbat torneo jokatzeke esperientziekin...

Batez ere, Japonian bizi izandako 25 egunak ditut gogoan. Han teorikoa ere lantzen dute, klase partikularrekin, eta dakiten guztia erabiltzen dute, paregabeko lehia eskainiz.



aldatze

www.aldatze.org

Indianokua gaztelekua zabalik eta eskaintza berriarekin

Martitzen arratsaldean zabaldu zituen ateak Indianokua gaztelekuak lehenengoz, ikasleak aste honetan oporretan daudela aprobetxatuta. Muzategi kaleko etxe berrietako parkean dagoen gaztelekua 12-17 urtera bitarteko gazteentzat aisialdia betetzeko eskaintza osotu eta berriarekin dator eta, horretarako, besteak beste, adin tarte horretan daudenen interes eta gusto-

ak kontuan hartu dituzte instalazio berria horietara egokitu ahal izateko. 400 metro karratuko azalera duen lokala hainbat zatitan banatu dute, gazteek txoko bakoitzean jardura jakin batzuk garatzeko modua izan dezaten, besteetan dihardutenei traba egin barik. Txokoetako batean hezitzaileen bulegoak eta bildegia ipini dituzte. Bigarren txoko batean ordenagailuak eta eskolako lanak egin



Gazteek txoko bakoitzean jardura jakin batzuk garatzeko modua izango dute. / SILBIA HERNANDEZ

nahi dituztenentzat mahaiaik eta bestelakoak daude. Eta hirugarren gune batean teknologia berriekin lotutakoak batu dituzte. Horiekin guztiekin batera, gaztelekuan lasai egon nahi dutenentzat sofak ipini dira, ikastaroak emateko sukaldetxoa dago, ping-pongean jokatzeko mahaia, futbolina eta beste joko batzuetan jarduteko aukera ere eskaintzen da.

Ordutegi berezia

Aste honetan egunero jardura bereziren bat garatzen

dihardute eta gaur bertan DJon-ek jardungo du musikarekin girotzen eta bihar, gaztelekuko sukaldea estreinatzeko, sukaldaritza tailerra egingo da, pizza egiten ikasi nahi dutenentzat. Gaur 16.30etatik 21.00etara zabalduko dute gaztelekua, zapatuan 17.00etatik 21.00etara eta domekan 17.00etatik 20.30etara. Bestalde, eta instalazioak ezagutzera emateko asmoz, ate irekien jardunaldiak antolatu dituzte biharko eta hurrengo zapatarako (hilaren 7rako), 11.00etatik 13.00etara.



Uni Eibar-Ermukoak Finlandian

Batxilergoko 30 ikasle eta birakasle bi Finlandiara joan ziren hilaren hasieran. Santanderren, 30 gradurekin, hegazkina hartu eta Bruselara abiatu ziren lehendabizi; hor bost ordu igaro eta Lappenrantarako hegaldia hartu zuten, goizeko 10.00ak aldera Finlandiara iristeko. Bertan zero gainetiko gradu biko tenperatura aurkitu zuten eta familiak

zain Eibartik joandako ikasleak euren etxeetara eraman eta aseturua elkarrekin pasatzeko.


Asteburua bakoitzak bere kasa pasatuta, astelehenean ikastetxean bildu ziren denak: batzuk gaztelaniazko klaseetan laguntzera eta beste batzuk bullying-aren inguruko bideo batzuk grabatzera Finlandiako ikasleekin batera. Arratsalde berean denok elkarrekin sauna



batera joan ziren eta ausartekak laku izoztuan bainua har-

tzeko aukera izan zuten (ikasle gehienak ausartu ziren).

Eguaztenean txangoa egin zuten Egurraren Museora eta eguenean, zelan ez!, futbito partidua jokatzeko aukeraz baliatu ziren: "Euskaldunok 6-5 irabazi genuen". Barixaku goizean, bestalde, jokoak izan zituzten Joutsenon eta, bidaiari amaitu aurretik, zuzendariaren agurra, sari banaketa eta kafea eta tarta. Ez dago txarto!



Gero eta indartsuago, urtero eta gogobetiago agertzen jaku Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordiak antolatzen dabena Argazkilaritza Maiatzean ekimena. Martitzenian aurkeztu eben aurtengo programaziñua, krisixa ixa igartzen ez dan egitarau zabalarekin. Hainbat arlo landuko dira bertan, aukera mordua eskinduko jakue kamara zalieri, irudixaren billa dabillena asetzeko modukuak danak. Gogotik egindako zerrendiaren aurrian gagoz, mundu zabalian biharrian diharduen izen haundiko egilliekin osatuta. Gozamena besterik ez!

Eskaintza zabala dakar barriro Klub Deportiboko Argazkilaritza Batzordiak maiatza osorako prestatutako ekitaldixak. Zortzi erakusketa -sei tokittan ikusgai-, argazki-estudixo bat kalia -doaneko galeria erretratuekin-, argazkilaritza digitaleko tailerra, urtiak eta urtiak egitten daroian rallye fotografikua... Urtetik urtera, aurreko ediziñuetako nobedadiak finkatzia-rekin batera, gauza barrixak gehitzen jakoz programazi-



M^a Gracia de la Hoz-ek Marruekosen egindako erreportajiaren irudixak eskinduko desku ixa hillabete osuan Portaleko erakusketa gelan.

ñuari. Eta, munduan zihar modan jartzen diran barrittasunekin batera, izen haundiko autorien lanak ikusteko aukeria egongo da aurtengo Argazkilaritza Maiatzean.

Barrittasun moduan, gaiñera, hillabetiarekin lotutako lehen Argazkilaritza Lehiaketia dogu,

El Corte Inglés-aren babesarekin antolautakua. Espaiñiako Argazkilaritza Konfederaziñuak eta Argazkilaritza Alkartien Euskal Federaziñuak emondako sarixak honakuak irabazi eben, hillaren 16xan epaimahaixak hartutako erabaxari jarraituta: bildumen arluan, Irungo Oscar Gascónek irabazi eban sari nagusixa, gure herriko Einer Rodríguezi bigarrena egokittuz; argazkixen arluan, bestalde, Zaragozako Jose Ramon Morenok, Bergarako Jorge Murgiondok eta Eibarko Juan Antonio Palaciosen lortu eben hiru sari nagusixak, aittatutako ordenian. Herriko sarixa, barriz, Virginia Arakistainek irabazi dau. Sarixak El Corte Inglésian emongo dira astelehenian, arratsaldeko 19.30xetan, eta jarraixan bertako erakusketa aretua estreñiatuko dabe lehiaketa honetako fotografixak batuko dittuan erakusketarekin.


Argazkilari haundixak

Aurtengo erakusketen artian, Gervasio Sánchézen fotografixak nabarmendu leikez. "Vidas minadas" lana erakutsiko dittu Portalean gerra kazetari-argazkilarixak, errealdade gordiñeko irudixekin. Antolatzaiñiak ez dabe ezkututzen irudixak gordiñegixak izan leikiezela, *"baiña ez dau gezurrik esaten; hori da daguana"*. 2009xan Argazkilaritza Sari Nazionala jaso ebanaren liburua be salgai izango da erakusketan, 25 eurotan.

Toki berian, Portalean, erakutsiko diran beste muestra bixak be aittatzekuak dira: Joseba Ibarra euskaldunak bere irudixetan argazkilaritza eta arkitekturia zelan fusionatzen dittuan erakusten desku eta M^a Gracia de la Hoz kataluñiarrak Marruekosen egindako erreportajeko irudixak ipiñiko dittu gure begi aurrian. Azken honek ohorezko sarixa jaso eban az-



Joseba Ibarrak fotografixa eta arkitekturia lotu dittu bere lanetan. Bere irudixak ikusteko aukeria izango dogu hillaren 6ttiik 29ra Portalean.



Feng Xiaohui sarituenetakua da Txinako argazkilarixen artian: bere lanak ikusgarrixak dira.

ken Indalezio Ojanguren argazkilaritza lehiaketan.

Aurtengo ediziñuan mundura zabaldutako bentaniak Txinara eramango gaittu, "herrialde hartan guztiz konsagratutako autorien lanekin". Wentong Wang-ek "Naturara juatia" eka-rriko desku, 1997tik Txinako Si-cuani mendebaldian egindako argazki seriea. Fujian Science and Technology Museum-ian biharrian dihardaben Wang-ekin, Feng Xiaohui izango da; azken hau gizakiaren gorputzari egindako argazkixetan eta sormenaren ingurukuetan nabarmendu da, batez be. Bata zein bestia argazkilari haundi-xak dira, edonundik begiratuta

be, eta euren lanak Untzagako Jubilatuen Zentro Sozialeko erakusketa gelan ikusi ahal izango dittugu hillabete osuan.



Martitzenian aurkeztu eben Klub Deportibuan hillabete osorako programaziñua. / SILBIA HERNANDEZ

Etxekuen lanak be ikusgai

Pixkat gerturatuta eta gure inguruko fotografuen lanari erreparatuz, urtero moduan Argazkilaritza Alkartekuen Euskal Federaziñuak antolatzen daben Argiziola Trofeuan nabarmendu ziran argazkilari onenen lanak ikusteko aukeria izango da Klub Deportibuan bertan. Eta Klub Deportiboko argazkilari-taldiak egindako lanak ikusgai izango dira, hillero moduan, Portaleko tabernan eta El Ambigú-n. Deporreko jendiak geratu barik dihardu argazkixak etaratzten eta erakusketa egitten eta horen muestratxua da

"gaur egun Málaga" dakena, herriko argazkilarixen lanekin.

Hillaren 14an, azken urtiotan egin dan moduan, argazki-estudixua montauko dabe Untzaga plazan, goizeko 10.00etatik 14.00ak arte, eta hor jendiak aukeria izango dau posatzeko; `Erretratu-galeria hiriaren bihoztzian´ izendatu dabe ekimena. Horrez gaiñ, erakusketa kolektibua eskinduko dabe bertan kokatuko dittuen argazkixekin.

Aurtengo argazki digitaleko taillerra Hugo Rodríguez ingeniari tekniko eta argazkilaritza irakasliaren eskutik egingo da. `Camera Raw´-ri buruzko taillerra izango da eta izena emoteko epia zabaldu eta berihala bete zan, handik hiru egunera. Eta Gabriel Brau izen haundiko fotografiak be azken liburua aurkeztuko dau Deporren.

Argazki mundua maitte dabennadako egun berezixa izaten da urtero maiatzaren azken asteburuan jokatu dan argazki rallya; ohikua danez, zuri-beltezko eta kolorezko maillatan emongo da. Izenak egun berian emon ahal izango dira, goizeko 08.30etatik 09.30-etara, Deporreko instalaziñuetan.

Maiatzaren 8an
Senpereko Aintziran

IRTEN: 09.30etan,
Ego Gainetik

BUELTATU: 19.00etan
- 9 euro -

J.A. MOGEL IKASTOLAKO GURASOEN ELKARTEA
...ETA KITTOI EUSKARA ELKARTEA

LAKUBAT MUNDUAN!

laku bat munduan
Maiatzak 8
SINPERE SEN!

IGOITZA NAGUSIA
Abitzarieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del
Bajo y Alto Daba

Tanatorio eta Errausketa laber
Egoiberran (Signo poligonoan)
Partikela, nukleo eta oigun erosi zerbitzuak
Korak - Eskelak - Uteumako eskelak
Euskal Herri osoko ospitaleen hartze zati-
Nazio eta Nazioarteko iruzteak

Mugica
Ehorzketa
Euzkoakutik talde

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

Urte osoko lanaren emaitza

Martitzenian egindako aurkezpenian, bizi dogun krisixari batzordiak zelan egin detsan aurre azpimarratu eban. Holan, Mariajose Telleria Kultura zifiegotzixak *"izango dogun goi maillako argazkilaritzat gozatzeko"* aukeria nabarmendu eban. Berak Brasilgo irudi batzurekin sentidutakua ipiñi eban eredu moduan eta *"kanpoko errealidadia zelan gerturazten deskuen"* azaldu eban. Deporrek egiten dabean *"bolondres lana"* goraiatu eban, *"bolondresa izan arren, lan profesionala eta ondo egindakua"* dalako. El Corte Inglés-eko ordezkariak programaziñuan laguntza emotiaz harro azaldu zan eta hurrengo urtiotan be bide beretik jotzeko prestua agertu zan. Aldi berian, Juanjo dendan zabaldu bihar dabean erakusketa aretuan zentrau zan eta honek *"goizeko 10.00-etatik gabeko 22.00ak arte ordutegi jarraixa"* izango dabela ziurtau eban. Mikel Larreategi Deporreko presidentiak eskerrek emon zetsazen Argazkilaritza Batzordiar prestatutako kalendarixuarengaittik. Eta Batzordekuak, azkenik, *"hillero hirur erakusketa egitten"* dabela



Wentong Wang-en "Naturara juatia" 1997tik Txinako Sicuani mendebaldian egindako seriea da. Argazkilari txinatarrak sari asko beregatu ditu.

PROGRAMAZIÑUA**6tik 29ra**

Gervasio Sánchez, Joseba Ibarra eta M^a Gracia de la Hoz
Portalean


1etik 31ra

Wentong Wang eta Feng Xiaohui
Untzagako Zentro Sozialian

Argazaiola

Deporren

Deporrekuen taldia

El Ambigún / Portalea tabernan**14an**Argazki-estudixua **Untzagan****21ean**Laboratorixu digitalaren taillarra
Portalean**29xan**Argazki-rallya **Deporren**

Feng Xiaohuiren lanak Untzagako Zentro Sozialian ikusi ahal izango dira maiatza osuan.

gogoratu eban, *"herriko ohiko tokixetan"*. Horrekin batera, personalizatzen hasitta, karte-

lak diseinatzen Aitor Divassonek egiten dabean lana goraiatu eban eta Einer Rodríguezi, *"aurtengo folletuaren egilliarri"*, be eskerrak emon zetsazen. Diru-kontuak eta zaintzeko, euren lan egittekoko modua aittatu eban: *"Gertuko eta ez hain gertuko jendiarekin izaten dittugu hartuemonak urtian zihar eta, horri esker, jardun normalian ezagututako jendiari esker, truke modukua egittekoko aukeria izaten dogu eta holan, gastu haundirik egin barik, jende ospetsuen lanak honaiño ekartzeko aukeria"*.

Bai Portalean, bai Untzagako Zentro Sozialian, baita El Ambigún-n eta Portaleko tabernan eta baita El Corte Inglés-eko erakusketa aretuan. Hor dittugu milla eta bat instant, gure begixen atentziñua euren ganatuko dabeanak.



Gervasio Sánchez-en "Bizitza Minatuak" bildumako fotografixak ikusgai egongo dira Portalean maiatzaren 6tik 29ra arte.

AUTOEN



**25.
zkoa.**

**...eta kittol
aldizkariaren
gehigarria**

gehigarria

Gasolina aurrez

PETROLIOAREN KONTSUMOAK GORA EGITEN DIHARDU ETA EPE MOTZ EDO ERTAINEAN ARAZO HANDIA IZAN

daitekeela entzuten dugun gero eta gehiago. Petrolioarekiko dugun menpekotasuna handiegia ei da munduan eta horri aurre egiteko, besteak beste, auto elektrikoaren inguruko ikerketak gero eta gehiago dira. Lehenengo auto elektrikoak kalean dira iada, baina oraindik ere gasolina eta diesela dira gehien erabiltzen direnak gure autoetan. Petrolio gehien duten herrialdeetan gertatzen diharduen arazo politikoez petrolioaren prezioan izan-

go duten igoerak beldurtuta, Espainiako gobernuak arau berria sortu zuen orain aste batzuk: 110 km/o gehinezko abiadura onartu zuen, aurretik den erregai kopurua nabarmen igotzen dela-eta.

Petrolio esportatzaile nagusien arazoak direla eta, edo bestelako arrazoiak medio, azken hilabeteetan gasolinaren prezioak igoera nabarmena izan duela, autoa duen edozeinek esango digu. Autoaren erregai-tanga betetzea gero



eta gehiago kostatzen da. Baina 110 km/o gehinezko abiadura erabiltzeaz gain, badago gasolioa aurrezteko modurik?

Adituek formula magikorik ez dagoela esaten dute, behin autoa hartuta, hain-

bat gauza kontuan izanda, erabiliko dugun gasolina kopurua gora edo behera egin dezake. Asko dira horretan eragina duten faktoreak, pisua, abiadura edo balaztaren erabilerak, besteak beste. Jarraian kontuan izan beharreko hainbat gauza zerrendatzen saiatuko gara. Adituek diotenez, autoa hartzen dugun bakoitzean "arau" hauek kontuan izanez gero, beharko dugun erregai kopurua behera egingo du.

- **ZAINDU KOTXEAREN MEKANIKA:** Autoaren egoera zaintzea oso garrantzitsua da. Auto fabrikatzaile bakoitzak gomendatzen dituen azterketak betetzea ere



MOTOS IRH
IÑAKI DEL REY HERMOSILLA

OTAOLA, 9 - 2. esk.
20600 EIBAR

MULTIMARCA
Salmenta eta Konponketa

Tel/Fax.
943 206 552
motosirh@telefonica.net

ad **AUTO Aurrera** KONPONKETAK

- Mekanika - Elektrizitatea
- ITVrako errebisioak
- Frenoak - Amortiguazioa
- Mantenimendua - Erroberak

Urtzaile, z/ g
Telefono eta Faxe: 943 20 80 65

20600 EIBAR
(Gipuzkoa)

ZURICH
Lejardi S.L Aseguru Agentzia
Tel 943201149 Plaza Barria 8 Eibar

ztea posible da

oso garrantzitsua da kontsumorako.

- **MOTORRA ONDO ABIARAZI:** Ez erabili azeleragailua motorra abiarazteko; gasolinadunetan motorra abiarazi bezain laster ekin diezaiokegu bideari, dieselaren kasuan, motorra abiarazi eta segundo batzuk itxarotea da egokiena. Azeleragailua erabiltzea kasu horietan alperrikako energia erabilera da.
- **ABIARAZTEKO MARTXA ZAINDU:** Autoa lehenengo martxan abiaraztea oso garrantzitsua da; bigarren aldatzeko, itxaron bi segundo edo askoz jota sei metro aurreratu eta gero.
- Martxak behar den moduan igo: Minutuko

2.000 birara ailegatzera koan aldatuko dugu mar-txa gasolinadun autoetan, dieselaren berriz, 1.500-era, mar-txa motelen kasuan, hau da, hirugarren martxaraino. Behin horretara ailegatu-ta, motorra minutuko 2.500 birara gidatuko dugu gasolina erabiliz gero, 2.000 dieselaren kasuan.

- **KANPOALDEAREN GARRANTZIA:** Bizikletak, maletak edo eskiak garraiatzeko gailuak erabilgarriak dira oso, baina garraiatzeko behar ditugunean bakarrik. Bestelako egunetan kendu kotxetik.
- **GURPILAK:** Presioa behar den baino baxuagoa eramatea ez da ona,



ez kontsumorako ezta gurpilendako ere.

- Leihoak itxi: Aire egokituak autoaren kontsumoa igotzen du, baina leihoak zabalik izateak, kontsumo handiagoa dakar. Hala ere, aire egokitua behar denean erabili, kontu handiz, bai kontsumorako eta bai osasunerako ere kontuan izan behar da-eta.
- **MOTORRA ITZALI:** Minutu bat baino gehiago autoa geldi egon behar baldin bada, itzali motorra.

Hainbat hiritan kontsumoa jaisteko ikastaroak antolatzen hasi dira. Hauek dira, besteak beste erakusten direnak. Lasai gidatzeaz dituen onurak, freno larre-gi ez erabiltzea edota abiadurari eustea erakusten saiatzen dira. Izan ere, ikastaro horietako arduradunek egindako ikerketaren arabera, urtean 20.000 kilometro egiten dituen auto baten kontsumoa kontrolatuz gero, urtean 260 euro inguru aurrezteko moduan izango ginateke. Horrela irakurrita, merezi duela dirudi.


Tailer  profesionalak


PINTURAS ARRATE, S.L.

- Nexa Autocolor
- Herberts industrial
- 3M produktuen banatzailea

ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

GASOLEOEN BANAKETA





Otaola etorbidea, 13-Bis **GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA**

Tfnoa. 943 20 73 74 Faxa. 943 20 70 91


R.A.C.V.N.-ren ordezkaritza

J.A. LASKURAIN
ASEGURU ARTEKARIA S.L.
D.G.S. 1.408 - J

BIDAIA ASEGURUAK

ERA GUZTIETAKO ASEGURUAK

Urtzail 1 (alboko sarrera)
Telf. 943 70 28 87 / 943 20 37 13 / 943 12 05 30
Faxa. 943 70 28 87 EIBAR

Auto elektrikoa hirietan nagusi izatea nahi da

Petrolioarekiko menpekotasuna handia da autoen kasuan eta asko dira hori apurtzeko auto elektrikoen aldeko apustuaren aldekoak. Bai auto fabrikatzaileak bai erosleak ere animatzeko hainbat kanpaina beharrezkoak izango direla argi dago. IBM enpresak AEBetan egindako inkesta baten arabera, erosleek interesa dute auto elektrikoan, baina zalantza asko daude. Gaur egun, oraindik ere, autonomia txikia dutela esaten da ikerketa horretan eta bereziki arazoak izan daitezkeela kargatzerako orduan. Izan ere, non kargatuko ditugu kotxe horiek? Zelan? Zentzu ordu beharko dituzte?

Erosle guztiengana aile-




gatu aurretik, badirudi hainbat instituziok gauzak arintzeko asmoa dutela. Gasteizen martxoan sinatu zen auto elektrikoa sustatzeko akordioa. Bernabe Unda, industria sailburuak eta Patxi Lazcoz, Gasteizko alkateak sinatutako akordio-

aren arabera, hiriburuak auto elektrikoak kargatzeko 15 eta 20 puntu artean jarriko ditu hiriburuan. Gainera, alokatzeko hogeita auto elektriko erosiko ditu Udalak eta Udalaren erabilerarako ere auto elektrikoak erosiko ditu aurrerantze-

Hiriburuetan herri barruetan erabiliko da hasieran gehienbat auto elektrikoa 2020ra arte; hortik aurrera egingo du gora nabarmen auto elektriko salmentak

an, zaharrak berritzen joan ahala. Izan ere, ikerketa askoren arabera, hiriburuetan, herri barruetan erabiliko da hasiera baten gehienbat auto elektrikoa, 2020ra arte. Hortik aurrera egingo du gora nabarmen auto elektriko salmentak.



SHIFT the way you move



SALMENTA ETA SALDU OSTEKO ZERBITZURIK ONENAK JADA BADU BERE TOKIA.

NISSAN GAURISA

Otaola etorbidea, 22 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
tel. 943 82 09 74



Infernua paradisuan

Mexiko

Gemmaren etxeak Playa del Carmen-go 5. etorbidea ematen du. Kale famatu horretan bezala, jendea hara eta hona dabil, sartu eta irten. Lagunak, ezagunak eta ez hain ezagunak, denetariok hartzen dute 'chelaren' (garagardoa) bat Gemmarenean. Anfritroia, izan ere, eskuzabala da eta berriketarako aukera luzatzen du beti.

Jaguar Negro bezala ezaguna den argazkilaria du lagun Gemmak. Argazkilaritzaz gain, artelanak sortzen ditu mexikar honek eta hainbat gizarte-laguntzarako elkartetan laguntzen du. Bere hitzak entzunda, Playa del Carmen buru jende gehienak duen irudia aldatu egiten da da. Karibeko herri ederraren, hondar zuridun hondartzaren eta turkesa itsasoaren, eta etengabe-ko festaren irudia guztiz iluna bilakatzen da.

Mundu osoko jendea hurbiltzen da **Cancún**, Playa del Carmen eta inguruko herrietara oporrak igarotzera. Hondartzan, zenoteetan, festan eta halakoetan ibili ostean, gehiengoak paradisutzat jotzen du lekua. Paradisua, hala ere, infernua da askorentzat.

Mexikoko toki turistiko handiena izanik, diru ugari mugitzen da Karibeko kostaldean. Horrela, Mexiko osotik etorritako jendea batzen da bertan: euren herrietan izan ez duten zortearen edo beste bizimodu baten bila etorritakoak. Baina gehiengoaren bizitza egoera ez da batere ona. Horren adibide bezala, **Quintana Roo**-ko estatua da suizidio-tasa gehien duen Mexikoko estatua (eta gora doa abiadura azkarrean). Arazo ekonomikoak, bakardadea (kanpotik bakarrik etorritako jende asko dago), arazo sentimentalak... kausak denetariok dira, eta hemen dagoen alkoholismo-tasa eta drogen kontsumo altuak arazo horiek handitu egiten dituzte.

Orokorrean, lan-baldintzak lotsagarriak dira Playa del Carmen eta inguruetan (nik dakidane-ra arte). Badaude salbuespenak, baina astean 6 egun lan egin eta 6.000-8.000 peso mexikar (300-500 euro gutxi gorabehera) irabaziz gero, zortekoa zara (eta hemen bizimodua ez da Euskal Herrian baino askoz ere merkeagoa). Pentsa, beraz, lan kaskarragoa duen horretan, edo are okerrago, lanik ez duen haretan.

Kasu askotan, lanean ematen dute eguna nagusiek. Eta umeek? Hainbat eskolek guk normalizat eza gutzen ditugun ordutegiak izan arren, badaude egunean hiru ordu dituzten batzuk ere. Normalean, gainera, jende umila doan eskolak dira horiek. Beraz, hiru ordu ikasi, eta gero zer? Kanean ematen dute eguna umeek, beste moduren batean etxe-ko ekonomiari laguntzen eta, hainbat kasutan, hori lortzeko, gurasoek objektu

sexual modura erabiltzen dituzte umeak. Umeen prostituzioak izugarriko gorakada izan du azken hamarkadetan Cancun eta Playa del Carmen bezalako tokietan. Modu izkutuan egiten da dena, baina bertakoek ederki dakite non eta nork baliatzen duen negozioa. Gainera, arrunta da prostitutzera behartuak diren ume horiek etxean ere gehiegikeria sexualak jasatea. Bestela ere, prostituzio-tasa altua da hemen, horrek dakartzan kontuekin: emakumeen salerosketa, mafiak eta abar.

Mafiak aipatuta, ezin da albo batera utzi **Zetak** Playa del Carmenen duten presentzia altua. Esan daiteke euren kontrolpean dagoela herria. Gauza larririk ez bada pasatzen, eurek horrela nahi dutelako da, kanean hara eta hona baitabiltzalako (jendartean kamuflatu dira, baina hemen denbora daramanak badaki nortzuk diren), negozioak han eta hemen dituztelako, eta bizilagunen artean euren presentzia ezaguna delako.

Festa-gune garrantzitsua izanik, droga salmenta negozio mardula da Playa del Carmenen. 5. etorbidean pasioan ibiliz gero, arrunta da 'mota' (marihuana), kokaina edo bestelako drogen eskaintza jasotzea (5. etorbidean bertan gordetzen dute droga kantitate handia). Dena poliziaren muturrean. Hor antzematen da nork agintzen duen hemen. Hainbat pertsonen komentatu bezala, polizia da Mexikoko kantzerra. Euren 'mordida' (atzetik dirua edo beste etekin bat ateratzen saiatzea) oso famatua da.

Herialde zoragarria izanik eta biztanle maitagarriak edukiz, penagarria da Mexikon gertatzen ari dena. Paradisua ematen duen tokian ere infernua aurkitzea. Eskerrak Gemmarenean 'Mexiko lindoa' ezagutu izana.



Eibartarren garaipenak eskola mailako atletismoan

TOLOSAN JOKATUTAKO GIPUZKOAKO TXAPELKETAKO BIGARREN JARDUNALDIAN, GURE HERRIKO ESKOLA MAILAKO ATLETAK ederto jardun zuten eta, horrez gain, hiru probatan nagusitu ziren. Horrela, alebin mailan, Maider Díez onena izan zen pisu jaurtiketan (Jone de Castro 3.a izan zen eta Ane Izquierdo 7.a), Julen Teránék altuera jauziaren proba irabazi zuen (Andoni Egurrola 5.a izan zen) eta azken hau, Egurrola, 60 metro hesietako proban nagusitu zen. Azken bi hauekin, Eneko Gisasolak eta

Markel Gutiérrezrek hartu zuten parte proba horietan. Nesketan, bestalde, Malen Amuategi, Elena Susaeta eta Malen Illarramendi ere izan ziren txapelketan. Infantil mailan Odei Jainaga izan zen ordezkari bakarra, disko jaurtiketan 5. postua eskuratu.




Maidier Díez eibartarra podiumaren goi-goian.

Aritz Lasa vs Bengoetxea VI.a Katedralean buruz-buruko txapelketan

PROFESIONAL MAILAKO BURUZ-BURUKO TXAPELKETAREN KANPORAKETA BI JOKATUKO DIRA DOMEKA ARRATSALDEAN (17.00etan hasita, ohikoa denez). Jaialdiarekin hasteko, 2. mailako txapelketako lehia ikusi ahal izango da, Ladis Galarza eta Jaunarena protagonista dituela; jarraian, Oinatz Bengoetxeak aurre egingo dio astelehenean toki berean aurrea egitea lortu zuen Aritz Lasa urretxurari. Jaialdiarekin amaitzeko binakako partidu bakarra izango da ikusgai: Apezetxea eta Cecilio Ongay eta Arrutiren kontra.



Dianaren arrantzaren lehiaketa maiatzaren 7an



DIANA EHIZA ETA ARRANTZA ELKARTEAK BAZKIDEENTZAKO BARBO ARRANTZAREN LEHIAKETA antolatu du Berriatuan, urterokoari jarraituz. Lehiaketa maiatzaren 7an jokatu da, 08.00etan hasita, eta interesatuek Miguel de Aginaga 5-eko euren lokaletan eman dezakete izena martitzenetan eta eguenetan.



Euskadiko xake txapelketak Unibertsitate Laboralean

EZ DA LEHENENGO ALDIA GURE HERRIAK TAMAINA HORRETAKO TXAPELKETAK ANTOLATZEN DITUENA; eta, domekan hasita, Euskadiko kadete eta jubenil mailako xakelari onenak ikusteko aukera izango dugu Eibarren. Julen Garro jubenilak iaz lortutako 2. postua hobetzea ez du erraza izango, horretarako txapela jantzi beharko zuelako; jarraian, Asturiasen jokatu den

Espainiako autonomien arteko txapelketan izango da, Euskadiko selekzioarekin: egutegi estua du, beraz, eibartarrak.

Bestalde, aurreko asteburuan amaitu zen Donostiako 34. nazioarteko txapelketa, 173 xakelari bildu zituen lehiaketa. Bertan izan ziren, Klub Deportiboa ordezkatzeko, Jon Arana eta Julen Garro xakelariak eta Mikel Larreategi eta Edu Olabe epaile lanetan.

Foball-zaletuen liga amaiera borrokatuenaren atarian

JARDUNALDI BI BAKARRIK FALTA DIRA FOBALL-ZALETUEN AURTENGO EDIZIOAREN LIGA AMAITZEKO eta sailkapena inoiz baino estuago dago goiko postuetan, hiru talde baitaude bi puntuko tarte estuan: Durango eta Teknografik goi-goian ditugu, 56 punturekin, eta 54 ditu JoserAuto

Sport-ek. Jardunaldi honek, dena dela, gauza asko argitu dezake, JoserAutok eta Durangok nor baino nor jardungo dute-eta bihar goizean, 09.00etatik aurrera, Unbeko beheko zelaietan. Teknografik-ek partidu errazagoa izango du (aurretik ikusita behintzat) Azkena Kalton-en aurrean.

Ruibal saskibaloia taldea mailari eusteko kinka larrian

URRETXUKO HIERCOR GOIERRIRI IRABAZITA ERE, GAUZAK ZAIL GERATU ZAIZKIO EIBARKO SASKIBALOI TALDEARI mailari eusteko daraman borrokan. Ruibalek partidu bikaina egin zuen



eta, lehen laurdenean 20-19 amaitu bazen ere, atsedenaldirako hamar puntuko aldea zuten (38-28). Hortik aurrerakoa errazagoa izan zen, azken 64-51ra heltzeraino. Aurkari zuzenarenaren garaipenak, baina, geratzen zaizkien partidu biak irabaztera derrigortzen ditu eibartarrak.

Eibarrek Lemoan jokatuko du bihar lidergoa berreskuratzeko asmoz

HIRU JARDUNALDI BESTERIK EZ DIRA GERATZEN LIGA AMAITZEKO eta Manixen mutilak badirudi bide onean doazela, "indarrak berreskuratuta", azken jardunaldi bietan 4-0 irabazi baitiete Alavés Gasteizen eta Torrelavegako Gimnástica Ipuruan. Bihar, ETB1-ek emango duen parti-

duan, Lemoa izango dute aurkari, Mirandés liderrak Irungo Real Unión hartzen duen bitartean. Pousok entrenatzen duen Mirandako taldeak Logroñora joan beharko du hurrengo jardunaldian eta horrek Eibarri lagundu diezaiokete lidergoa berreskuratzen (gaur egun hiru puntura daude Eibarkoak).

Denetariko emaitzak gure pilotarientzat Udaberri torneoan

BINAKA ZORION ARRILLAGAK ETA IKER NARBAIZAK 18-8 IRABAZI BAZIETEN ERE Aldalur eta Arakistaini Debako frontoian, Udaberri Torneoaren lau eta erdiaren barruan Klub Deportiboko ordezkariak hiru porrot eta garaipen bi izan zituzten azken asteburuan. Horrela, Unamunzagak 22-14 irabazi zion Rezusta bergararrari Astelenan eta Agirresarobe kadeteak 22-18 garaitu zuen Goierriko Alvarez Ipuruan. Zubizarretak (20-22), Andonegik (11-22) eta Egañak (15-22), bestalde, galdu egin zituzten euren partiduak.

Asobal ligan jarraitzeko garaipen garrantzitsua lortu du Arratek

HERENEGUN IPURUA KIROLDEGIAN AMAYA SAN ANTONIO-REN AURREAN LORTUTAKO GARAIPENAK hurrengo denboraldian Asobal Ligan jarraitzeko txartela eman dio ia Arrateri, Eibarko taldeak sei puntuko aldea kentzen baitio une honetan Toledori (honek partidu bat gutxiago jokatu du) denboraldia amaitzeko hiru jardunaldiren faltan; euren arteko berdinketa emanez gero, gainera, Arrate izango zen aurretik.



Kurilenko izan zen beste behin goleatzaile nagusiena.

28-25 irabazi zion eibartarrek nafarrei, batez ere Voncina atezainari esker eta Kurilenkok (9 gol), Tokic-ek (7) eta Beljanskik (4) lortutako golei esker.

Bestalde, jubenil mailako taldeak Espianiako txapelketarako sektore fasea jokatuko du asteburuan Logroñon: Iruñeko Anaitasuna, Bartzelona handia eta Logroñoko Naturhouse izango ditu aurkari.

Bigarren Hezkuntzako Institutua
A eta D ereduak

AURREMATRIKULA
Batxilergoa:
Maiatzaren 2tik 11ra
Zikloak:
Ekainaren 1etik 10era

Lehen Mailako Prestakuntza Zikloak

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
DEIA ZIENTZIAK ETA HUMANISTEDIA

Bigarren Mailako Prestakuntza Zikloak

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
NABIGABEREN MERKATUTZA
ARBITRATU FISIKO ETA ERDOL ANIMAZIOA
SISTEMA INFORMATIKO ETA KARRER ADMINISTRAZIOA
PLATAFORMA ANITZKO APLIKAZIEN GARAPENA
WEB APLIKAZIEN GARAPENA

Lehen Mailako Prestakuntza Zikloak

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

ADMINISTRAZIO KUDERAKETA
MERKADINFORMATIKOAK ETA GABEREN MERKATUTZA

Lehen Mailako Prestakuntza Zikloak

ANAUTU GABEKO HEZKETA

HEZKETA JARRAITUA
BERRESNERTASO HEZKETA
GARRANTZIA PARTZIALE

ONDARRI AURDIA ZIB. ERREKO ERREMOA (IBERRIA) 481 17 88 ET. OYARBE HERRIOA, 28. 20600 EIBAR (IPUZUELA) 943 20 88 44
UNIBERSITATEA.COM




EIBAR-ERRUS

Herriko waterpolistak play-offetako finalean izango dira

AZKEN JARDUNALDIAN, ZAPATUAN DONOSTIAN JOKATUTAKO PARTIDUAN EASORI 8-15 IRABAZIZ eta Orbea kiroldegian jokaturako neurketa polemikoan Tximistarrirekin 5-7 galdu eta gero, Urbat-Urkotronik-eko waterpolo taldeak asteburu honetan play-offetako finala jokatzeko txarte-

la eskuratu zuen, denboraldi bete egin ondoren, beti ere lehenengo postuen bila.

Aurreko sariarekin batera, Mikel Recio soraluzetarrak ere jaso du berea, Urbateko jokalaria sei gol sartu zituen-eta Euskadiko selekzioarekin Jaénen jokaturako estatu mailako finaletan.



Goi Mendi Eskolaren hiru ikastaro maiatzerako

GIPUZKOAKO GOI MENDI ESKOLAK HIRU IKASTARO ANTO-LATU DITU ETZI SARTUKO GAREN HILABETERAKO. Maiatza-

ren 7 eta 8an Glaziare Alpinismo ikastaroa egingo da Peña Teleran, Kirol Eskaladakoaren hitzordua hilaren 21 eta 22rako dago iragarrita Eginon eta, azkenik, Arroilak jaisteko kurtsoa emango da maiatzaren azken asteburuan (hau da, 28 eta 29an) Fago-Ozan. Informazio gehiagorako, interesatuek www.gmf-fgm.org helbidera jo dezaketa edo, bestela, 943 461 440 telefono zenbakira deitu.




Rugbi taldeak domekan jakingo du mailaz igoko den

BOST PUNTUKO ALDE URRIAREKIN DOA EIBAR RUGBI TALDEA MADRILE-RA, BERTAKO ARQUITECTURARI GAUR EGUN OHOREZKO B MAILAN DUEN POSTUA KENTZERA. Partida etzi eguerdian jokatu da eta eibartarrek azken aldian Igor Sendino eta Jokin Garcíaren parte-hartzea izan dezakete neurketara-

ko. Unben jokaturako joaneko neurketan, Hierros Anetxe 13-8 nagusitu zen, partidua azken jokaldian Diego Suárezek lortutako entsegu bati esker, ondoren Gaizka Arrizabalagak transformaturakoa. Arquitecturakoek, dena dela, hiru-laurdeneko lerro indartsua dutela erakutsi zuten eta entseguak lortzeko aukera bat baino gehiago izan zuten.

Danel Sagasta izan zen onena Otxoa Memorialean

JMA TALDEKO DANEL SAGASTA NAGUSITU ZEN KADETE MAILAKO OTXOA MEMORIALAREN 32. EDIZIOAN. Urkizuko helmugan izandako esprintean, irabazleak aurrea hartu zien Belcako Jon Irisarri, Inoxcrako Ander Alonso, Grosgreencenter-eko Onditz Urruzmendi eta Lan Mobekeko Ander Garateri. Xabier San Sebastianek (Belca) bereganatu zuen lehiakortasunaren saria, Inoxcrak irabazi zuen taldekako sailkapena eta Ciclos Iturriagako Andoni López izan zen Debabarreneko onena.



EIBAR

SARRERAK ...eta kitto!-n
15 euro bazkideentzat
18 euro gainerakoentzat

Zigor Iriondo eta Unai Muñoa

Xabi Astigarraga eta Mikel Arrillaga

BERTSO desafioa

BERTSO-AFARIA Bide Alde
elkarte gastronomikoan
Maiatzak 6, 21.30etan

LASARTE

I. Futbol Festak hartuko du Untzaga bihar eta etzi

JUAN ZUBIAURRE OÑATIN LIDERGO EKINTZAILE ETA BERRIKUNTZA IKASTEN DIHARDUEN EIBARTARRAK, bere ikasketekin lotutako proiektua egiterakoan, jaialdi berezia eskainiko digu eibartarroi "antzinako erara bueltatuz eta plaza eta erdigunea denon gune moduan bizitzeko" aukera emanaz. Kirol parte-hartzailea eta ikuskizuna izango dira bihar eta etzi Untzaga plazan, egun bietarako antolatutako programazio bereziarekin. Finlandiara egindako bisitaldi batean piztutako ideia aurrera eramatea erabaki du, "ekonomia liburuak irakurri eta bezeroei egindako bisitak konplementatzeko". Abenduan izan zuen horrelako proiektuen metodologia gertutuitik ezagutzeko parada Finlandian eta, orduetik, "lehenengo Unibertsitate Laboralean egiteko asmoa nuena herri erdira ekartzera erabaki nuen, ahal den herritar gehienendako izateko asmoarekin". Bide batez, "sasoi batean Arratek bere partidua Untzagan jokatzen zituen espiritua" berpiztuko zen gure herrian; eta horrela izango

da. Klaseko aretxabaletar batek lagunduta, kementsu ekin dio asmoari Zubiaurrek eta, jendea enteratzeko izan zitzakeen zailtasunei aurre egin die, "batez ere, ahoz-ahoz eta Tuenti sare soziala erabiliz: azken hau izan da gakoa".

Astelehenean itxi zen izen-ematea eta 11 futbito-talde hartuko dute parte I. Futbol Festan, "bederatzi Eibarkoak, Ermuko batek eta gineatarrez osatutako Bilboko beste batek". Azken talde hau ere gelako ikaskide batek osatu du, bere herrikideekin. 16 urtetik 23-24 urtera artekoak dira taldeetako jokalariek. **Zapatuan, 11.00-etatik 13.00ak arte** jokatuko dira lehenengo partidua; **16.00-etan Iperuako dantza taldeak** Janire Hornak egindako koreografia landuko du eta **20.00etatik 21.00ak arte Mendaroko Motxaila Band** txarangak rock musika eskainiko du, "anplifikadoreekin-eta bestelako musika mota eskainiz". Partidua, birtartean, goizeko 01.00ak arte luzatuko dira, "denok denon aurka jokatuko baitugu eta plazak duen argiarekin arazorik ez



Juan Zubiaurrek ia berak bakarrik antolatu du asteburuko jaialdi kirolari berezia. / J.L.G.

dagoelako gauz jokatzekeo", dio Zubiaurrek. Giroari eusteko, gainera, behin partidua amaituta, jaiak "Punto y Aparten jarraituko du, Iker Silva Dj-arekin, goizeko 04.00ak arte gutxi gorabehera".

Hurrengo egunean, **domekan**, finalak jokatuko dira sei talde onenen artean, "bi triangular erara, hortik finalean zeintzuk jardungo duten erabakitzekeo". **10.00etan hasi eta 14.30ak bueltan amaituko da** txapelketa, sari banaketarekin. Tarte horretan, "12.30etan bertso-poteoa egingo da Untzaga-ko tabernetan, Zarauzko Mantxirekin, Itziaroko Iñigo Izagirrekin eta Aramaioko Xabier Igo-

arekin, sari-banaketan ere lagunduko dutenak". Jaialdiari behar den moduko amaiera emateko, **bertso-bazkaria** izango da **Iruki sagardotegian**.

Partidua harmailen aldeko plazan jokatuko dira. "Marrak margotu, porteriak ipini... egun berean egingo dugu eta txosna ere izango da, edariak eta pintxoak eskainiko duena. Partiduen artekoa musikak beteko du", dio antolatzaileak. Ekitaldi berezia, beraz, gazte honek antolatu duena, "foballa beste arlo batzuekin konektatuz eta leku itxitik atera eta plazara-tuz". Hala ere, eguraldiak zeresan handia izango du: zortea izan dezala espero dugu.

Kalamuako Muguruza judoka estatuko finaleran izango da

LOGROÑOKO ADARRAGAN JOKATUTAKO KANPORAKETAK IRABAZI ETA LEHENENGO POSTUA ESKURATUZ, Nekane Muguruza judokak Formenterako uhartean jokatuko diren Espainiako txapelketako finalerako txartela eskuratu du. Erri-



xan jokatutako lehiaketa horretan Manu Agirre epailea ere izan zen, torneo oso arduratuz; ez hori bakarrik, Tolosako Usabal kiroldegian izandako gerriko beltzen azterketarako epaimahaian ere izan baitzen Agirre, Euskal Federazioak horrela izendatuta.

Estatutu berriak onartzeko Klub Deportiboaren ez-ohiko batzarra gaurko

MARTXOAREN 18-AN EGINDAKO EZ-OHIKO BATZAR NAGUSIAN AIPATUTAKOARI JARRAITUZ, eta apirilaren 4an zuzendaritza batzordean erabaki zenez, presidentea eta zuzendaritza batzordea berritzeko hauteskunde prozesua abiatzeko beste ez-ohiko batzar nagusi bat egingo da gaur Deporren, 19.30etan hasiko den bigarren deialdian. Prozesu honetako klubaren estatutuak Eusko Jaurlaritzaren dekretu berrira egokitzeke eman beharreko urratsei jarraitzen dio eta gaurko bileran hauteskunde araudia, egutegia eta arduraduna izendatuko dira. Informazio gehiago www.deporeibar.com/55 helbidean aurkitu daiteke.



Gaurko batzarrerako bigarren deialdia 19.30etan izango da. / ARTXIBOA

Uda badator eta udarekin batera Kantabria Etxekoek hainbat ekitaldi antolatzen dituzte; esanguratsuen esku-bolako torneoak da, Kantabrian egiten den "herri kirola". Irailean, berriz, La Bien Aparecida-ko Amabirjinaren omenezko jaiak egiten dituzte; meza eta bazkaria antolatzen dute Kantabriako Patroiaren omenez, hainbat dantza ikuskizunekin batera.



JUAN CARLOS CASTAÑEDA (Casa Cantabria)

"Eibarko bizitza sozialaren parte izaten saiatu behar dugu"

- Zenbat bazkide ditu Kantabria Etxeak?

167 bazkide ditugu Eibarko gure egoitzan izena emanda. Gipuzkoa osoan gurea da Kantrabriako Etxe bakarra: Euskadiko besteak Bizkaian eta Araban daude, baina gu gara probintziako bakarrak.

- Esku-bola (bolo-palma) txapelketa egiten duzue urtero...

Bai, Ipurua foball zelaitik gertu dagoen gure bolatokia. Aurten ere lehen mailako 80 parte-hartzaile baino gehiago izango ditugu: Kantabrietik etorriak gehienak, baina baita estatuko beste hainbat lekutatik etorritakoekin. Dagoeneko hasi gara prestatzen Ipuruako bolatokia, dotore jarri behar dugu-eta.

- Zenbat ekitaldi antolatzen dituzue urtean zehar?

Mus, tute, flor eta beste hainbat karta-joko txapelketak antolatzen ditugu Jardifñeta kalean dugun gure xedean; Ipuruan, aldis, toka, igel eta aitzo lehiaketak antolatzen ditugu. Eta, urtean behin, irtee-

ra egiten dugu Kantabriara; aurten Castillo de Arguesora joango gara egun-pasa.

- Eibarko hainbat ekitalditan parte ere hartzen duzue muxutruk...

Hala da.: laguntzea gustatzen zaigu. Ez dugu ahaztu behar gure Kantabria Etxea Eibarren dagoela eta, horregatik, herriko ekitalditan presente egotea gustatzen zaigu. Elbarko Txirindularitza Elkartearekin elkarlanean dihardugu eta laguntzen ahalegintzen gara, trafikoa gelditzen esaterako. Baita Gurutze Gorriarekin, Korrikarekin, Deparkel-ekin, Urkiko jaietan... laguntzea gustoko dugu.

- ...eta kitto! elkartearen bazkide izateko gogoak ere erakutsi duzue.

Hala da, bai. ...eta kitto! elkartearen lana asko estimatzen dugu, astekaria ere jendeak asko maite du eta, gurekiko jarrera ere eskuzabal izan denez zuen partetik, laguntza eskaintzea ere gustatuko litzaziguke ahal dugun neurrian.



laz Bide Alden jokaturako bertso-desafioaren irudia. / MAIALEN BELAUSTEGI

Eibar eta Lasarte aurrez aurre Bide Aldeko bertso-afarian

...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEAK, ILLUNABARRIAN PROGRAMAREN BARRUAN, BERTSO-AFARIA ANTOLATUKO DU datorren maiatzaren 6an, barixakua, urtero moduan Bide Alde elkarte gastronomikoarekin elkarlanean. Aurten Eibar eta Lasarteko taldeek jardungo dute lehian. Eibartarren aldetik Xabi Astigarraga eta Mikel Arrillaga izango dira, eta Lasartetik, berriz, Zigor Iriondo eta Unai Muñoa. Sarrerak salgai daude honez gero ...eta kitto!-n bertan (Urkizu 11, solairuartera) 18 eurotan (15 euro bazkideentzat). Afaria gaueko 21.30etan hasiko da Bide Alden (Txaltxa Zelai 8-10 behea).



Ignazio Zuloaga institutuko "Egungo Islak" erakusketa Portalean ikusgai

ARTE BATXILERGOA IKASTEN DIHARDUTEN IGNAZIO ZULOAGA INSTITUTUKO IKASLEEK, AZKEN URTEOTAKO MARTXARI JARRAITUTA, "Egungo Islak" izenburuko erakusketa ikusgai ipini dute dute Portaleko erakusketa aretoan. Institutuan arte arloko ikasketak egiten dituztenen lanek osatutako erakusketa da batik bat, baina beste alor batzuetako ikasleek ere badaude. Bestalde, ikusgai daudenetako asko klaseko lanak dira eta, beraz, ez daude guztiz amaituta, baina arteari, gizarteari eta etorkizunari begira egindakoak direla azaldu dute antolatzaileek. Margoak, marrazkiak, argazkiak, keramikazko piezak... hainbat teknika eta material erabilia sortutako eskulturak, diseinu grafikoak, collageak eta bestelakoak biltzen dituen erakusketa ikusteko azken eguna bihar (zapatua, apirilak 30) izango da.

Musika Eskolako soinu-joleen doinuak Saloun

EGUAZTENEAN HARTU ZUTEN SALOURAKO BIDEA MARISOL ARRILLAGAREKIN SOINUA JOTEN IKASTEN DIHARDUTEN ikasleeta-ko batzuk, bertan saio pare bat eskaini eta, bide batez, oportunitate daudela aprobetxatuta, turismo piskat egiteko. Atzo arratsaldean lehenengo saioa eskaintzea zuten aurreikusita eta bihar zapatua, berriz, 20.00etan ekingo diote bigarren saioari Salouko itsas-pasealekuan.

Irakaslearen berbetan, *“hara ailegatuta bertan dagoen ikasle batekin elkartuko gara elkarrekin jarduteko. Lau akordeoik eta beste lau soinu-txikik osatutako taldeak bestela ere hemen, Eibarren, sarritan jarduten du antolatzen diren ekime-*



netan parte hartzen eta, taldean daudenen harremana oso ona denez, egun batzuk kanpoan ematea bururatu eta, bide batez, ikuskizun berezia Eibartik kanpora aurkezteko aukera aprobetxatzea pentsatu genuen”. Izan ere, Tarragonan

aurkeztuko duten saioa urteroko martxa erregularretik alden-duko da erabat, soinu-joleek musika ez ezik, dantzak eta kantuak ere (euskeraz eta katalanez prestatu dituztelako 25 bat minutuko iraupena duen ikuskizuna osatzeko.

Eibar Plazara Arraterekin

DATORREN ASTEBURURAKO, MAIATZAREN 6-RAKO ETA 7-RAKO EIBAR PLAZARA IZENENKO PROGRAMA BEREZIA GARATUKO DA Arrate eskubaloi taldearen la-

gunartearen eskutik. Barixakuan arratsaldetik hasiko dira jarduerak, 19.00etan, Untzagaraino kalejiran ibiliko diren taldeen kontzentrazioarekin. Besteak beste, erraldoiak, hankapaloak, Arrate Eskubaloi Taldeko harrobiko banderadunak, Eibarko Dantza Taldekide taldekoak, trikitalariak, Ustekabe fanfarrekoak, dultzaineroak, Kezka dantza taldekoak, Kaleetan Kantuz-ekoak eta gaiteroak parte hartzea dago aurreikusita. Kaleko emanaldiak amaituta, gauean 22.30etan Astele- na frontoian jarraituko du jaiak, Sostoa Abesbatza, Los Camperos, Musika Eskolako maria- txia, Eibarko Koro Gaztea, Dos Veracruz, Goruntz abesbatza eta Voces y Cuerdas taldeen

eskutik. Nahi duenak sarrerak erosteko aukera dauka, herriko tabernetako askotan salgai ipini dira eta (12 euro).

Zapaturako egitarauari begiraturaz gero, besteak beste Usartza txistulari taldearen alardea, Zero Siette eta Mp5 taldeek girotutako bazkaria, umeendako jaialdia, Cielito Musika Bandaren kalejira eta saltsa taldearen emanaldia batu dituzte. Eta gauerako, gustu guztiak asetzeko moduko eskaintza: Untzagan rock kontzertua emango dute Belzeblues, C.V. eta Garrapata taldeekin eta Astelena frontoia, berriz, “Recordando la Bolera” Dj eta karaoke saioa hartuko du (sarrerak 5 eurotan salduko dira, bakarrik leihatilan).



laburrak

DEFIBELEN ALDEKO JAIALDIA

Maiatzaren 19an Defibel Debabarreneko Fibromialgia eta Astenia Kronikoa dutenen elkarteak antolatutako jaialdi benefikoa hartuko du Coliseoak, 20.30etatik aurrera. Elkartearentzat dirua batzeko asmoarekin antolatutako jaialdian Eibarko Balletak, Ipurua Dantza Garaikidea taldeak, Biraka dantza taldeak, Lacasiun latinamerikako dantza taldeak eta Teatro Interior antzerki taldeak hartuko dute parte eta sarrearen aurrealmenta martxan dago Zubi Gain, Trinkete, Leo, Txoko eta Guridi tabernetan, Marrodan bitxitegia eta 648977587 telefonoan.

AFARIKETAN

Oporretan Afariketan udaleku irekietan parte hartu nahi dutenentzat izen-emateko epea maiatzaren 9an zabalduko dute eta hilaren 12ra arte izango da horretarako aukera, Indianokua gaztelekuan (11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara). Lehen Hezkuntzako 1. mailatik 6. mailara bitartekoentzat udalekuak txanda bitan banatu dituzte (maiatzaren 27tik uztailaren 8ra eta uztailaren 4tik 15era).

UEU-KO UDAKO IKASTAROAK

Maiatzaren 9an zabalduko da Udako Euskal Unibertsitatearen udako ikastaroetan parte hartzeko izen-emateko epea. Aurten 39. edizioa beteko duten ikastaroak Eibarren (ekainaren 27tik uztailaren 1era eta uztailaren 11tik 15era), Baionan (uztailaren 4tik 6ra) eta Iruñean (uztailaren 18tik 20ra) emango dira.



CARLA (2010-V-2) I. URTEURRENA

“GURE BIZITZAREN ARGIA ETA GURE OPARI HANDIENA IZAN ZARA. Ez zaitugu inoiz ahaztuko. Beti gurekin izango zara”

GARCÍA FAMILIA

“Papiro...flexia” Eskolarteko Antzerki erakusketan

MAIATZA ETA EKAINA BITARTEAN ES-KAINIKO DITUZTE DEBABARRENEKO ESKOLARTEKO XXVII. ANTZERKI ERA-KUSKETAREN EGITARUAU osatzen du-



Zapatuko ipuina liburutegian

“HIRU, BI, ZAST... EGIZU JOLAS!” IZENBURUKO LANAREKIN AILEGATUKO DIRA BIHAR UMEEN LIBURUTEGIRA TTINBILI-TTANBALA TALDEKOAK, Zapatuko Ipuina programari jarraituta. Enkarni Genua eta Manu Gomezen gidoiari jarraitzen dion ikuskizuna 18.00etan hasiko da eta 3-8 urte bitarteko umeentzat pentsatuta dago. Kutxak babestutako saiora sartzea, betiko moduan, doan izango da.



Baginaren bakarrizketak

EVE ENSLER-EN “BAGINAREN BARRAKIZKETAK” EKARRIKO DIZKIGUTE TXALO ANTZERKI TALDEKOEK COLISEO-RA, maiatzaren 13an 20.30etan (sarrerak 7 eurotan salgai). Gehien antzeztu den testu garaikideetako bat den lan honetan Aitziber Garmendia eta Ainhoa Garai antzezleek jardungo dute elkarrekin beharrean, Begoña Bilbaok zuzendutako lanean. Emakumeen sexualitatea *“lotsa barik, argi eta garbi”* azaltzen duen lana adin, arraza, maila kultural eta sozial aniztasunetik datozen 200dik gora andrazkoei egin zitzaizkien elkarrizketetan oinarritzen da eta arrakasta ikaragarria izaten dihardu antzeztu den toki guztietan. Izan ere, eta protagonisten berbetan, *“umorea, samurtasuna eta tarteka izua adieraziz, antzezle biek ematen diete ahotsa istorio sare honetako protagonista diren andrazkoei eta, eurek bezala, barrearen ondoan poesia eta probokazioa jartzen dituzte”*.

ten antzeztan. Urteroko moduan, gure eskualdeko ikasleen antzeztanez gain, tarteko konpainia profesionalen ikuskizunak eskainiko dituzte, beti ere umeen gustuei lehentasuna emanda. Herritar guztientzat zabalik egongo diren ikuskizun horien artean lehena datorren astean bertan, maiatzaren 6an eskainiko dute Coliseoan, 20.30etan (7 euro). Logela & Circle Of Trust taldeek sortutako hip-hop dantza multimediako lan berri honen asmoa, *“paperezko irudigintzaren artea eta gizakiaren sormen prozesua metafora bidez alderatzea”* da eta gazteei zuzenduta



egon arren, *“edozein adinekoek gozatze-ko modukoa”* dela diote egileek. Datozen egunetan beste talde profesioal batzuk etorriko dira gurera, Coliseoan zein Hezkuntza Esparruan euren lanak taularatzera.

Danborradaren entseguak hastear

DATORREN ASTEAN, MAIATZAREN 4-AN (EGUAZTENEAN) HASIKO DIRA AURTENGO SAN JUAN JAIETAN EGINGO DIREN danborradetarako entseguak. Urteroko martxari jarraituta, datorren astean hasi eta eguaztenero egingo dituzte entseguak, 19.00etan umeek eta jarraian, 20.00etan helduek. Danborradan parte hartzeko asmoa dutenei entseguetara joateko dei

egiten diete antolatzaileek, danborradan eskainiko diren doinuak ikasi eta egunerako prestatzen joan daitezten. Bestalde, nagusien danborradan urtero hainbat laguni omenaldia eskaini ohi zaie eta, antolatzaileek aurreratu digutenez, aurtengo karrozan Juan Antonio Mogel ikastolakoak joango dira, berriki ospatu duten ikastolaren sorreraren 50. urteurrenaren harira.

DENBORAPASAK

6			9	7	3			8
3		8		5		4		
	1				9			
	9	4	1		7	8	2	
			8				9	
		9		8		2		6
1			3	9	2			4


AURREKOAREN EMAITZA

SUDOKUA


7	4	1	6	9	3	2	8	5
8	8	2	4	5	1	7	6	3
6	3	5	7	8	2	1	4	9
3	7	0	5	6	4	9	2	1
2	5	8	3	1	8	6	7	4
4	1	8	2	7	9	3	5	8
9	8	3	8	4	7	5	1	2
1	8	7	9	2	5	4	3	6
5	2	4	1	3	6	8	9	7

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunene bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MARIA, hillaren 19xan hiru urte egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, PAULA, hillaren 21ian urte bi egin zenduazelako. Muxu haundi bat June, amatxo eta aitaoren partez.




Zorionak, LEIRE, zure 13. urtebetetzian. Alaitz, aitta eta amaren partez.




Zorionak, PAUL Alberdi, hillaren 24an bost urte bete zenduazena-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, MARKEL Larrañaga Manzanos, hillaren 23an zazpi urte bete zenduazena-eta. Etxekuen partez.




Zorionak, ANDER, atzo bederatzia urte egin zenduazena-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, atzo hiru urte bete zenduazelako. Patxo haundixa famelixa guztiaoren partez.




Zorionak, IMANOL, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Patxo erraldoi bat, txapeldun, etxeko guztien partez.



Zorionak, AINHIZE Egurrola Mugerza, astelehenian hiru urte egin zenduazena-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, AMAIA, eguaztenian sei urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.




Zorionak, UNAX, martitzenian bost urte egin zenduazena-eta. Patxo mordua etxekuen partez.



Ongi etorri, GARI Guenaga! Garat, Ganix eta etxekuen partez.


zinea Coliseoan



"Aguila Roja"

Zuzendaria: Jose Ramon Aierra
Aktoreak: David Janer, Javier Gutiérrez, Francis Lorenzo, Inma Cuesta


30ean: 17.00, 19.45 eta 22.30
1ean: 17.00 eta 20.00



Zorionak, NEREA Gorostiza Ojanguren (13 urte) eta MARIA Zabaleta Ojanguren (2 urte), astelehenian zuon urtiak izan ziran-eta. Etxekuen partez.



Zorionak, OSKAR eta NAHIA, urtiak bete dozuelako. Muxu haundi bana danon partez.




"Caperucita Roja"

Zuzendaria: Catherine Hardwicke
Aktoreak: Amanda Seyfried, Gary Oldman, Billy Burke, Shiloh Fernández

29an: 22.30
30ean: 19.45 eta 22.30
1ean: 20.00
2an: 20.30



Zorionak, IKER Merizalde Buenaire, gaur zazpi urte egiten dozuelako. Aitta, ama, amama, osaba eta Juanen partez.



"Como la vida misma"

Zuzendaria: Greg Berlanti
Aktoreak: Katherine Heigl, Josh Duhamel, Josh Lucas, Christina Hendricks

29an: 22.30
30ean: 17.00
1ean: 17.00
2an: 20.30

HILDAKOAK

- Mari Zubiaurre Leiaristi. 84 urte. 2011-IV-17.
- Luis García Macías. 72 urte. 2011-IV-18.
- Irene Sarasketa Urain. 91 urte. 2011-IV-19.
- Maria Oregi Etxeberria. 86 urte. 2011-IV-20.
- Gregoria Gisasola Azpiazu. 88 urte. 2011-IV-22.
- Carmen Del Moral Ruiz. 66 urte. 2011-IV-22.
- Luis M^a Tellería Izeta. 75 urte. 2011-IV-22.
- Valentín Rodríguez González. 93 urte. 2011-IV-23.
- Melchor Unzueta Solaegi. 92 urte. 2011-IV-25.
- Adoración Sánchez Moreno. 84 urte. 2011-IV-26.
- Milagros Manso Ibarluzea. 80 urte. 2011-IV-27.
- Ibone Garmendia Fernández. 2011-IV-4.
- Hiart Vázquez Santos. 2011-IV-5.
- Rami Benslaiman. 2011-IV-7.
- Luján Ortega Díez. 2011-IV-7.
- Naike Dueñas Ballesteros. 2011-IV-9.
- Paula Rodríguez Vázquez. 2011-IV-10.
- Alvaro Sierra Prieto. 2011-IV-11.
- Unai Murillo Luis. 2011-IV-11.
- Naia Mondragón Urizar. 2011-IV-14.
- Eneko Arrizala Cabezuolo. 2011-IV-15.
- Oihenart Agirre Ferreira. 2011-IV-18.
- Ilyass Maachov. 2011-IV-23.

horoskopoa

ARIES

Aste Santuan topera ibili zara, ez zara momentu batean ere gelditu eta zure gorputzak gehiegikeriak igartzen ditu. Zaindu.

TAURUS

Ez dakizu zoriontsu izateko ez dela asko behar? Duzun guztia gehiago baloratu beharko zenuke. Inguruokak inbidiaz dituzu.

GEMINI

Zeharo despistatuta zabilta, gauza asko ahazten zaizkizu eta hasitakoa amaitzea asko kostatzen zaizu. Zentratu.

CANCER

Espero ez zenuen berri horrek zure planak aldatu ditu. Lasai, oraindik ere sasoz zabilta egoerari buelta emateko. Animo, lagun!

LEO

Look aldaketa behar duzu. Noiztik daramazu ilea moztu barik? Eta zamarra zahar hori? Mesedez, 2011an gaudela! Egokitu behingoz!

VIRGO

Zelan gustatzen zaizun dotore irtetzea kalera, eh? Goitik behera, pintzel baten moduan janzen zara. Zurea bai modari jarraitzea.

LIBRA

Besteek esaten dutenari garrantzi gehiegi ematen diozu eta azkenerako, zuk nahi duzuna egin beharrea, besteek diotena egiten duzu.

SCORPIUS

Eguzkiarekin kontuz ibiltzeko esan dizut mila bider, baina badirudi ez duzula ikasten. Ez irten kalera eguzkitako krema bota egin barik!

SAGITTARIUS

Pilak ondo kargatuta itzuli zara Aste Santuko oporretatik. Orain lasai hasi berriro egunerokotasunera ohitzen. Bidetik irten barik!

CAPRICORNIUS

Poz-pozik ibili zara Aste Santuko oporretan, ezta? Atsedean hartzea behar zenuen zure pentsamenduak txukuntzeko. Orain bai sasoiari!

AQUARIUS

Asteburuan orain arte izan ez duzun atsedena hartzeko aukera izango duzu. Aprobetxatu, datozen egunak gogorraz izango baitira. Kontuz!

PISCIS

Zure gelak edozer gauza ematen du. Hasi zaitetz erropak jasotzen eta logela txukuntzen; ez zara-eta umea, ama atzetik izateko beti.

Barixakua 29

INDIANOKUA GAZTELEKUA

16.30.- Djon-en saioa. Indianokua gaztelekuan.

Zapatua 30

EIBARKO FUTBITO TXAPELKETA

11.00.- Futbito partiduak. Kanporaketak. Untzagan.

16.00.- Dantza saioa, Ipuruako Dantza Taldearekin.

21.00.- Rock musika, Mendaroko Motxailla Band txarangarekin.

01.30.- Iker Silva Dj-aren emanaldia. Punto y Aparten.

ATE IREKIAK

11.00/13.00.-

Indianokua gaztelekua ezagutzeko ate irekien jardunaldia.

17.00.- Sukaldaritza tailerra (pizza). Indianokua gaztelekuan (Muzategiko etxe berrietan).

GAZTETXE EGUNA

12.30.- Debako Elektro Txarangarekin kalejira eta poteoa.

15.00.- Bazkaria, Txaltxa Zelaiko parkean. Ondoren, bakarlarria eta antzerkia. Jarraian kontzertuak: Lokura Prematura (Eibar) eta Klavo Oxidado (Soraluze).

UMEENDAKO MUSIKALA

17.00 eta 18.30.- Musika-ikuskizuna umeentzat. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

ZAPATUKO IPUINA

18.00.- "Hiru, bi, zast... egizu jolas", Lanku-ren eskutik. Umeen liburutegian.

BERTSO SAIOA

22.00.- Bertso-saioa Imanol Lazkano, Beñat Ugartetxea, Igor Elortza, Julio Soto, Maialen Lujanbiko eta Julen Zelaietarekin. Antolatzailea: Mallabiko Orraitio Euskara Elkarteak. Mallabiko pelotalekuan.

Domeka 1

EIBARKO FUTBITO TXAPELKETA

10.00.- Futbito partiduak. Finalak. Untzagan.

12.30.- Bertso-poteoa.

15.00.- Bertso-bazkaria, Iruki sagardotegian.

UMEENDAKO MUSIKALA

17.30.- Musika-ikuskizuna umeentzat. Sarrera: 10 euro. Coliseoan.

Astelehena 2

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

12.00.- Nagusien XVIII. Hamabostaldiaren inaugurazioa. Portalean.

16.00.- Pertsona Nagusien Ibilaldia Juan Luis Mugerzaren Oroimenez. Untzagatik Azitainera.

GURASOAK MARTXAN

18.00.- "Gurasoen eta seme-alaben heziketa emozionala", Baikara-ren eskutik. Portalean.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

19.00.- Argazkilaritza Maiatzean lehiaketako irabazleei sariak banatzea eta erakusketaren inaugurazioa. El Corte Inglés-ean (erakusketa aretoan, supermerkatuaren ondoan).

Martitzena 3

IKASTEN

10.00.- "La literatura picaresca del siglo XVI y XVII", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

16.00.- Txokolate-jana, Egogain Gerontologia Zentroan (bertakoentzat).

SANTA KURUTZ EGUNA

18.30.- Kanpai-errepika. **19.00.-** Santa Kurutzeko ermitan Gorosta eta Mandiola auzoetan hildakoen alde.

Eguaztena 4

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

09.00.- Aralarreko San Migelera txangoa. Irteera Ego Gainetik.

ZIKLOMOTORREN AZTERKETA

09.00/14.00.- Ziklotomotorren azterketa teknikoa (alde zurretik Udaltzaingoa txanda eskatuta). Zezen-plazan.

IKASTEN

10.13.- Mendi-ibilaldia: Lekeitio-Oleta-Gizaburuaga-Aulestia. Irteera Estaziñotik (Ardantzan 10.15etan).

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

19.00.- Argazkilaritza Maiatzean argazki lehiaketako irabazleei sariak banatzea eta erakusketaren inaugurazioa. El Corte Inglés-ean (erakusketa aretoan, supermerkatuaren aldamenean).

DANBORRADARAKO ENTSEGUA

19.00.- Umeen entsegua. **20.00.-** Nagusien entsegua. Beistegi eraikinean (Bittor Sarasketa kalean).


Eguena 5

IKASTEN

10.00.- "La literatura picaresca del siglo XVI y XVII", Jose Domingoren eskutik. Armeria Eskolan.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

11.00.- Toka, petanka eta igeltoka txapelketa. Ipuruako bolatokian. Mahai-jokoen txapelketa (tute, mus, briska, domino eta seieta). Ipuruako jubilatutegian.



erakusketak

– Apirilaren 30era arte

“EIBARKO IGNACIO ZULOAGAREN EGUNGO ISLAK”. Portalean.

EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA-ren 85. urteurreneko erakusketa. Portalean (Armagingtaren Museoan, 5. pisuan).

JOSE ANTONIO FRAGUAS “FORGES”-en “La república en la persona muchos bienes proporciona (¡Vamos digo yo!)”. Portalean.

KLUB DEPORTIBOko argazkilaritza taldekoen “Arotosteak” erakusketak. El Ambigú eta Portalea tabernetan.

“COLECCIONES”, Aula 7 argazkilaritza taldearen argazkiak. Depor tabernan.

II. ERREPUBLIKAREN ALDARRIKAPENAREN 80. URTEURRENA-ren inguruko interesgunea. Juan San Martín liburutegian.

– Argazkilaritza Maiatzean

WENTONG WANG ETA FENG XIAOHUI argazkilarien lanak. Untzagako jubilatuen etxean.

30 ARGIZAIOLA LEHIAKETA. Klub Deportiboan.

DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEA-ren erakusketa kolektiboa. El Ambigú eta Portalea tabernetan.

ARGAZKI LEHIAKETAko lanen erakusketa. El Corte Inglés-eko erakusketa aretoan.

mintegiak

– **Euskararen Transmisioari buruzko mintegia.**

Noiz eta non: Maiatzaren 25ean (08.45etatik 13.30etara eta 15.00etatik 17.30etara), Portalean. Informazioa eta izen-ematea: ...eta kitto! Euskara Elkarte (943200918 telefonoan).

lehiaketak

– **Ixua-Valenciaga argazki lehiaketa.**

Informazioa eta lanak aurkeztea: Maiatzaren 6ra arte, Eibarko Txirrindularien Elkarte (Pagaegi, 3 behean) edo cce@clubciclistaeibarres.org

– **Sanjuanak 2011 kartel lehiaketa.**

Informazioa eta lanak aurkeztea: Maiatzaren 13ra arte, Pegoran. Saria: 600 euro.

– **Sanjuanetan alkohol larregi ez edateko pegatina lehiaketa.**

Informazioa eta lanak aurkeztea: Maiatzaren 13ra arte, Pegoran. Saria: 180 euro.

farmaziak

29. barixakua

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

30. zapatua

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

1. domeka

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

2. astelehena

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

3. martitzena

EGUNEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 10)

GAUEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 10)

4. eguaztena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

5. eguena

EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

6. barixakua

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)

telefono jakingarriak

SOS deiak112

Pegora010

Udaletxea943 70 84 00

Portalea943 70 84 39

Udaltzaingoa.....943 20 15 25

Mankomunitatea943 70 07 99

Debegesa.....943 82 01 10

KIUB943 20 38 43

Epaitegia943 03 34 00

Iberdrola901 20 20 20

Naturgas902 12 34 56

DYA Larrialdiak.943 46 46 22

Gurutze Gorria..943 22 22 22

Mendaro osp.....943 03 28 00

Anbulategia.....943 03 25 00

Torrekuia943 03 26 50

Errepideak.....902 11 20 88

Ertzaintza943 53 17 00

Eusko Tren902 54 32 10

Pesa902 10 12 10

Taxiak.....943 20 30 71

.....943 20 13 25

Alkohol.Anon. ..629 14 18 74

Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 21.10. **DONOSTIA-EIBAR**. Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 18.30etara ordu, 19.30, 20.30 eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR**. Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR**. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR**. Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.15. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR**. Zapatuak: 14.45. Jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 13.30 eta 20.30. Jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR**. Lanegunak: 14.00 eta 20.50. Jaiegunak: 12.30 eta 19.30.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.20 eta 07.05etatik 22.35etara ordu erdiro. Zapatuak: 07.00etatik 21.00etara ordu. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu. **MENDARO-EIBAR**. Lanegunak: 06.45etatik 21.15etara ordu erdiro eta 21.55. Zapatu eta jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara ordu eta 21.55.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 08.13etatik 22.15etara ordu, 10.55 eta 21.55. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR**. Egunero: 07.47etatik 20.47etara ordu, 9.20 eta 20.20. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunero: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.56 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR**. Egunero: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Pisua salgai Eibarren. 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. Oso argitsua, berriztuta eta bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. Prezio oso interesgarria. Tel. 627-084503 eta 943-127140.

– Apartamentu polita salgai Mendarón. Logela handia, egongela, sukaldia eta komuna. Berria (2001ekoa). Bizitzera sartzeko moduan. 126.500 euro. Tel. 652-718426 eta 666-349860.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Ermuan. Tel. 658-735514.

– Pisua alokagai. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 658-740334.

– 4 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Erreferentziak. Tel. 685-380585.

– 3 logelako pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 626-584512.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 943-201106 eta 680-526228. Nuri.

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 628-785393.

– Eibarren logela independentea alokagai. Komuna, mikrouhinak, telebista. Garajea aukeran. Tel. 652-765200.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garajea hartuko nuke alokairuan Ipuruako dorreen inguruan. Tel. 620-917212.

– Lokala alokagai Amañan. 180 m². Argitsua eta ibilgailuentzat sarrera onarekin. Tel. 605-771570.

– Garaje itxia salgai Txomon. 36.000 euro. Tel. 644-403759.

– Lokala salgai Urkizu aldean. 90 m² ingurukoa. Aterpearekin. Tabernarako egokia. Prezio ezingobea. Deitu 18.00etatik aurrera. Tel. 606-773886.

3.2. Errentan

– Txontan lokala alokagai. 485 m². Beheko solairua eta kamioiarenzako sarrera. Prezio onean. Tel. 943-202729 eta 650-022371. Bixente.

– Garaje itxia alokagai Matsarian, Estaziño aurrean. 3x5 metrokoa, labaderoarekin. Tel. 610-395630.

– Garajea alokagai Asua-errekan. 22 m²koa eta itxia. Tel. 678-426136.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile edo kamarera moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 608-474923.

– Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 649-086057.

– Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 696-450343.

– Mutila eskaintzen da terrazan edalontziak jasotzeko, garbiketarako eta nagusiak zaintzeko. Tel. 648-716291.

– Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Dendan esperientzia. Tel. 943-172816 eta 605-720298. Eva.

– Neska eskaintzen da tabernan eta sukaldean lan egiteko. Tel. 605-147304 eta 943-172816. Paola.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 608-376387.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 679-910991.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko orduka. Tel. 629-473105.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 646-682575.

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 679-912841.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko orduka. Tel. 648-603029.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-077394.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 617-727744.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 651-836353.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-716699.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 646-821678.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko orduka. Tel. 608-820954.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernak garbitzeko. Tel. 646-506777.

– Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko. Tel. 676-035738.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 675-007271.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanetarako eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 626-068463.

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 618-734000.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko, nagusiak gaez edo asteburuetan zaintzeko eta sukaldari moduan. Tel. 699-609190.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanetarako eta dendan laguntzeko. Tel. 662-267569.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako lanetarako, dendan laguntzeko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 649-008036.

– Emakumea eskaintzen da orduka sukaldari moduan lan egiteko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 671-343612 eta 943-531931.

– Gizona eskaintzen da txofer moduan eta lorezain moduan lan egiteko. Tel. 671-343612 edo 943-531931.

– Mutila eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan. Esperientziarekin. Tel. 657-683887.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 605-129530.

– Neska eskaintzen da etxeak edo tabernak garbitzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 688-806348.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta elkarrekin edo etxeak garbitzeko. Tel. 656-946074.

– Mutila eskaintzen da soldatzaile eta galdaragile jarduteko. Tel. 628-615057.

– Emakumea eskaintzen nagusiak zaintzeko. Tel. 680-969415.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 660-919423.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Kamioi, taxi eta ambulanzia karnetekin. Tel. 663-656621.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanetarako. Tel. 672-572526.

4.2. Eskaintzak

– Kamareroa behar da taberna beretarako. Tel. 943-031253.

– Sukaldaria eta kamareroa behar dira Aste Santurako. Autoarekin. Tel. 677-638184.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– Irakaslea behar dut Batxilergo 2. mailako klaseak jasotzeko. Tel. 697-348080.

5.2. Eskaintzak

– Alemanierazko klaseak ematen ditut haur, gazte eta helduentzat. Tel. 647-275374.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Motorzalearen ekipamendua salgai. L tamainakoa gutxi gorabehera. Tel. 628-043195.

– Bizikleta estatikoa salgai. Ia berria. 100 euro. Tel. 647-275374.

– Kutxatzar izozkailua salgai. Gram hiru izarrekoa. Tapa transparenteak. 2x0'9 m. Oso egoera onean. Tel. 943-207873.

6.4. Bestelakoak


– Katakumea hartuko nuke. Tel. 639-044748.

gte.

GESTIÓN TÉCNICA Y EJECUCIÓN DE OBRAS, S.A.



edificio **aldatze**²



8 etxebizitza

63 garaje

17 trastero

610 718 244 / 943 700 150

Aukera ezinhobea:

Garajeak Eibar erdian



LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2011-2012 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**

La Salle
Eibar


Euskadi
2009

943 121 698

maiatzaren
2tik 11ra



I.E.S Ignacio Zuloaga B.H.I

